

Kazetaritza eta Dokumentazioa, informazioaren sarbide irekiaren eta sare sozialen bidegurutzean

Periodismo y Documentación en la encrucijada del acceso abierto a la información y las redes sociales

Teresa Agirreazaldegi Berriozabal (koord/coord.)



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

**Kazetaritza eta dokumentazioa,
informazioaren sarbide irekiaren
eta sare sozialen bidegurutzean**

*Periodismo y documentación en la encrucijada
del acceso abierto a la información
y las redes sociales*

Kazetaritza eta dokumentazioa, informazioaren sarbide irekiaren eta sare sozialen bidegurutzean

Periodismo y documentación en la encrucijada del acceso abierto a la información y las redes sociales

Teresa Agirreazaldegi Berriozabal
(koord./coord.)



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
ISBN: 978-84-9860-725-3
Depósito legal/Lege gordailua: BI - 1.834-2012

Aurkibidea/Índice

Aurkezpena	9
Presentación	13
I. 11 kazetaria (Periodistas de hoy) <i>Iban Arantzabal Arrieta</i>	17
II. Euskaraz komunikatzea Interneteko uholdearen garaian: erronkak eta eredu aldaketa (Comunicación en euskara en la era de Internet: retos y cambio de modelos) <i>Idurre Eskisabel</i>	25
III. <i>VilaWeb</i> . 16 años de prensa digital y una nueva revolución (<i>VilaWeb</i> : 16 urteko komunikabide digitala eta beste iraultza bat) <i>Vicent Partal</i>	31
IV. Unibertsitateetako bibliotekak: informazio zientifiko eta akademikorako sarbide irekiaren aldeko konpromisoa (Bibliotecas universitarias: compromiso por el acceso libre a la información científica y académica) <i>Paula Quintano</i>	41
V. Teknologiaren ergina erabiltzaile, profesional eta liburutegi-estrukturetan. Nora doaz gure betiko liburutegiak? Hausnarketa arin bat (Influencia de la tecnología en los usuarios, los profesionales y en las estructuras de las bibliotecas. ¿Hacia dónde se dirigen nuestras bibliotecas tradicionales? Una reflexión irreflexiva) <i>Fernando Juárez Urquijo</i>	67

VI.	Koldo Mitxelena: liburutegiaren esparruak eta zerbitzuak zabaltzen (Koldo Mitxelena: abriendo los servicios y los espacios de la biblioteca) <i>Susana Araiz</i>	75
VII.	Los archivos y la gestión de los documentos hoy. Tendencias y retos (Artxiboak eta dokumentuen kudeaketa gaur egun. Joerak eta erronkak) <i>Joaquim Llansó Sanjuán</i>	85
VIII.	Efemerideak irratian: nola pertsonalizatu denon eskura dauden datuak (Las efemérides en la radio: cómo personalizar datos que se encuentran al alcance de todos) <i>Joseba Martín</i>	101
IX.	Redes sociales profesionales. Mi experiencia en LinkedIn (Sare sozial profesionalak. Nire esperientzia LinkedIn-en) <i>Fernando Fernández de Aránguiz Urteaga</i>	107
X.	Aplicaciones prácticas de los códigos QR (QR kodeen aplikazio praktikoak) <i>Fernando Fernández de Aránguiz Urteaga</i>	117

Aurkezpena

Esku artean duzun lan hau bederatzi adituren esperientziaren, ikerketaren eta hausnarketaren emaitza da; ikertzaile edota profesional horiek bi ardatzen inguruau jardun dute: lehenbiziko ardatza Kazetaritza eta Komunikazioa da; bigarrena, Dokumentazioa, Liburutegiak eta Artxiboak. Helburua hauxe izan da: azken urteetan esparru horietan Interneten bidez gure gizartean eta gure kulturan gertatzen ari diren aldaketak aztertzea eta horiei buruz hausnartzea, besteak beste, informazioaren sarbide irekia, sare sozialak, telefonia mugikorraren garapena, etab.

Gogoeta hori guztia hizkuntza erraz eta ulerterraz batean eskaintzen saiatu gara. Lana arlo horietako ikasleengan pentsatuta dago batez ere, baina baita iker-tzaile, profesional eta, oro har, gure unibertsio hurbilean informazio- eta komunikazio-gestioan izaten ari diren joerak eta aldaketak ezagutu nahi dituen pertsona ororen gain er.

Hiru atalek eta hamar kapituluk osatzen dute liburua. Lehenbiziko atalean, Kazetaritzari buruzko lau txosten bildu dira: aurreneko hirurak hiru komunikazio enpresaren jardunari buruzkoak dira: *Goiena* Debagoineko komunikazio-taldea, *Berrria* euskal egunkaria eta *VilaWeb* Kataluniako agerkari elektronikoa.

Komunikazio esparrua asko aldatu da azken hamarkadan, baliabideak zabaldu egin dira eta baita hartzileen eskakizunak ere. Zelakoa izan behar da komunikazio talde bat 2011. urtean? Eta zelako kazetariak behar dituzte enpresek? Galdera horiei erantzuten saiatu da Iban Arantzabal *Goienako* ikus-entzunezkoen zuzendarria, lehenengo kapituluan, *11 kazetaria* izenburuean. Informazio-gizarteak lan-ereduaren aldaketa eta espezialisten beharra ekarri ditu; gai konkretuak sakonki landu eta mimatzeko beharra, eta baita teknologiak menperatzeko premia ere, multimediala izan behar diren kazetariekin. Eredu-aldekak hamaika lan eta komeria eragin ditu, baina helburua argi daukate *Goienakoek*: lehen baino zerbitzu hobea ematea ikus-entzuleei eta irakurleei.

Bigarren kapituluan, Idurre Eskisabel *Berriako Interneteko eta multimedialo arduradunak Euskaraz komunikatzea Interneteko uholdearen garaian: erronkak eta eredu aldaketa azaldu du*. Interneten hedapenak iraultza ekarri dio komunikazioaren alorrari, eta horrek jokaleku aldakor eta zailean jarri ditu komunikabide tradizionalak oro har, eta, prentsa bereziki. Are gehiago hizkuntza minorizatu batean aritzen diren komunikabide txikiak. Baina *Berrian* komunikatzeko aukera berriak ikusi dituzte, itsaso globalean hartzaileari erabiltzaile izateko bidea egiten laguntzeko, eta horren emaitza dira *berria.info* berritua, *hitza.info*-en ekosistema berria eta *berriketan.info* informazioaren euskarazko sare soziala.

Hirugarren kapituluan, *VilaWeb: 16 urteko komunikabide digitala eta beste iraultza bat*, gaur egun Interneten gertatzen ari den iraultza azaldu du Vicent Partalek, *VilaWeb* egunkari elektronikoaren zuzendariak. Kataluniako egunkari elektroniko hori aitzindaria izan da, baina orain arte ikusitako guztia goitik behera aldatu da sare sozial eta telefono mugikorren eraginez. Erronka berri horiek direla eta, egunkari elektronikoak berriz planteatu behar dira, zaharkitura geratu direlako. Partalen hitzetan, Interneteko oraingo iraultza aurreko baino biziagoa eta zabalagoa izango da, besteak beste, mugikorren eraginez pertsona oro harrapatuko duelako.

Liburuaren bigarren atalean Dokumentazioa, Liburutegiak eta Artxiboak hartu dira kontuan, lau kapitulutan. *Unibertsitateetako bibliotekak: informazio zientifiko eta akademikorako sarbide irekiaren aldeko konpromisoa* kapituluak zabaltzen du atala, Paula Quintano Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko liburuzainaren eskutik. Unibertsitate-liburutegiek bilakaera handia izan dute, eredu tradizional eta estatikoak ziren, eta gaur egun, berriz, Ikasteko eta Ikertzeko Biliabideen Zentro (IIBZ), jakintza lortzeko eta zabaltzeko beharrezkoak diren zerbitzu eta biliabide guztiak integratzen dituzten zentro dinamikoak. Kontzeptu berria barneratzeak bultzada indartsua ekarri du Unibertsitateak OA *Open Access* mugimenduarekin duen erlazioarentzat, kontuan izanda OA ekinbideak informazio zientifikorako eta akademikorako sarbide digital irekia aldarrikatzen duela. Kapitulu horretan OA informazio-produktu nagusiak aztertu dira, erakunde-biltegiak eta «zientzia irekiaren biltzaileak», sarbide irekiko aldizkarien plataformak (OAJ) eta ikaskuntzarako materialen biltegiak (OCW). Eta, noski, sarbide irekiko informazioaren arloan egile-eskubideak eta jabetza intelektuala nola kudeatzen diren, adibidez, *Copyleft* eta *Creative Commons* lizenziaren ekimenen bidez.

Susana Araiz Koldo Mitxelena Liburutegiko liburuzain-buruak, *Liburutegien esparruak eta zerbitzuak zabaltzen titulupean*, Koldo Mitxelena liburutegiko zereginak azaldu ditu bostgarren kapituluan. Egileak dioenez, liburutegi horren nortasuna tradizioaren eta modernizazioaren arteko orekan datza, eta horren berri emateko liburutegiaren bilakaera aztertu du, esparru eta zerbitzuak zabaltzeko egin diren ahaleginak azpimarratuz, eta liburutegiaren proiektuak, kezkak eta erronkak aurkeztuz.

Seigarren kapituluan, Muskizko liburuzain eta udalaren webgunearen arduradun Fernando Juárez Urquijok liburutegien etorkizunaren inguruan egindako gogoeta ageri da: *Teknologiaren eragina erabiltzaile eta profesionalengan eta liburutegi egituretan. Nora doaz gure betiko liburutegiak? Hausmarketa arin bat.*

Liburuak, apalak, papera, isiltasuna... horiek dira, batik bat, burura datozkigun irudiak *liburutegi* hitza entzuten dugunean, baita *jakintza* ere. Informazioa non topatzen den galdeztzen bada, ordea, burura datorkiguna pantaila da. Hori horrela bada, nola egokitzen ari dira liburuzainok informazio eta komunikazio teknologien garapenera? Zer nolako zerbitzuak prestatzen dituzte? Zer egiten da gaur egun liburutegietan informazioaren eta erabiltzaileen artean zubi-lana egiteko? Galdera horiei eta beste batzuei erantzuten saiatu da egilea.

Zazpigarren kapituluau, Joaquim Llansó Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Dokumentuak kudeatzeko ataleko eta Artxibo Orokorreko buruak esparru horretan izaten ari diren joerak eta erronkak aztertu ditu: *Artxiboak eta dokumentuen kudeaketa gaur egun*. Artxiboen eta horien tratamendu teknikoen bilakaera erakundeen eguneroko premia administratiboen eta informazio teknologien eta jendearen arteko komunikazioaren eraginaren arabera gertatu da. Hala, gizartearren eragina dela eta, artxiboen arloko profesionalak «artxibozain» ez ezik, «dokumentu kudeatzaile» ere badira. Aldatzeko hainbat arrazoi izan dituzte, bai premien aldetik, bai orientazio profesionalaren aldetik. Joera berrieik erronka agerian jartzen dituzte erronka berriak, zeinak oso desberdinak izan arren elkarri lotuta dauzen arloetatik datozen: legeria, nazioarteko normalizazioa, gizartearren premien bilakaera, gaitasun profesionala (prestakuntza) eta aurrerakuntza teknologikoa. Txostenaren asmoa da lotura horiek dagozkien testuinguruan jartzea eta etorkizuna antolatzea, kontuan hartuta gizartearren zerbitzura dauden dokumentu eta artxiboen gestioa nola bilakatuko den.

Hirugarren atalean, hiru eginkizun oso espezifiko aztertu dira. Zortzigarren kapituluau, Joseba Martín Radio Euskadi-ko «La jungla sonora» saioko zuzendari eta UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak *Efemerideak irratian: nola pertsonalizatu denon eskura dauden datuak lana ekarri digu*. Dakigun moduan, gero eta webgune gehiago ditugu efemerideen datuekin eta, era berean, zenbait arlotako datuak bereziki bide honetatik landu dira (zientzia, musika, meteorologia, kirolak...). Baino kazetariarentzat gakoa zera izango da: balio berriak sortzea informazio hori guztia pertsonalizatzu.

Azken kapituluak Odei SAKO dokumentazio-aholkulari den Fernando Fernández de Aranguiz Urteagaren eskuistik datozen: lehena *Sare sozial profesionalak. Nire esperientzia LinkedIn-en*, eta bigarrena, *QR kodeen aplikazio praktikoak*. Gaur egun, LinkedIn da sare profesional ezagunena. Sare sozial hori pertsonak ezagutzeko eta lanaren inguruko esperientziak trukatzeko tresna ona da, eta elementu hauek biltzen ditu: ezaugarri profesionalak, kontaktuen sarea eta debate-taldeak; azken horiek esperientziak elkarrekin partekatzeko balio dute.

QR kodeen aplikazio praktikoak kapituluarekin bukatzen da liburua. Kode horiei esker, objektu fisikoetan estekak ipintzen dira, eta erabiltzaileek ez dute teknikau behar beren aparatu mugikorrean informazioa aurkitzeko. QR kode bat sortzea erraza eta doan da, eta duten erabilgarritasunagatik asko hedatzen ari dira hainbat esparrutan: publizitatean, museoetan, liburutegietan, hezkuntzan... Horien erabilera interesgarri batzuk azaltzen dira kapitulu horretan.

Presentación

El presente trabajo es fruto de la experiencia, la investigación y la reflexión de nueve autores —profesores, investigadores y profesionales— en torno a dos grandes ejes: el primero, el Periodismo y la Comunicación; y el segundo, la Documentación, las Bibliotecas y los Archivos. El objetivo es analizar y reflexionar sobre los grandísimos cambios que están experimentando estos sectores en nuestra sociedad y en nuestra cultura, de la mano de Internet, con la expansión de los movimientos de acceso abierto a la información, las redes sociales, el desarrollo del acceso desde el móvil, etc. Se ha tratado de ofrecer esta reflexión en un lenguaje sencillo y comprensible para todos. En primer lugar, para los estudiantes en estas áreas de conocimiento, que son los destinatarios principales del libro; pero también para investigadores, profesionales y cualquier persona, en general, interesada en conocer las grandes tendencias y cambios en la gestión de la información y la comunicación en nuestro universo más cercano.

El libro está compuesto de tres partes y diez capítulos. En la primera parte se agrupan tres trabajos en torno al Periodismo, que tratan la actividad de otras tantas empresas de comunicación: *Goiena*, del grupo de comunicación Debagoiena, el periódico en lengua vasca *Berria* y el periódico electrónico catalán *VilaWeb*.

El espacio de la comunicación ha cambiado mucho en la última década, los recursos se han ampliado y también lo han hecho las expectativas de la audiencia. ¿Cómo debe ser un grupo de comunicación en el año 2011? ¿Qué tipo de periodista necesitan las empresas? Iban Arantzabal, director de audiovisuales del grupo *Goiena*, tratará de responder a estas preguntas en el primer capítulo. El título, que hemos traducido como *Periodista de hoy*, quiere señalar que en el nuevo contexto un periodista ha de ser más que un «periodista diez». La sociedad de la información ha traído un cambio en el modelo de trabajo y la necesidad de especialistas, ya que se hace preciso profundizar y tratar con mimo temas concretos; pero, tam-

bien es necesario dominar diferentes tecnologías, con periodistas multimedia. Estos cambios de modelo suponen mucho trabajo y enredos, pero en *Goiena* el objetivo es claro: dar un mejor servicio a espectadores y lectores.

En el segundo capítulo, Idurre Eskisabel encargada de Internet y medios multimedia de *Berria* presenta *La comunicación en euskara en la era de Internet: retos y cambio de modelos*. La llegada e implantación masiva de Internet en nuestra sociedad ha traído una auténtica revolución al mundo de la comunicación, llevando así a los medios de comunicación tradicionales (especialmente a la prensa escrita) a constantes retos y cambios de modelos. La situación de los pequeños medios en euskara, u otras lenguas minorizadas como la nuestra, es aún más desequilibrada. Pero toda esta revolución también tiene su cara amable: conlleva nuevas formas de comunicarse. Es necesario implantar el concepto multimedia, la búsqueda de lo nuestro en todo el mar global, y enseñar al receptor el camino para llegar a ser usuario. Éstas son las apuestas que hace *Berria* en la renovada web *berria.info*, en el nuevo ecosistema *hitza.info* o *berriketan.info*, la red social de la información en euskara.

En el tercer capítulo, bajo el título *VilaWeb. 16 años de prensa digital y una nueva revolución*, Vicent Partal director del periódico electrónico catalán *VilaWeb* explica la revolución que se está produciendo en Internet. Todo lo visto hasta ahora está cambiando radicalmente de la mano de las redes sociales y de los teléfonos móviles y, frente a estos nuevos retos, es necesario replantear los diarios electrónicos porque han quedado viejos. En palabras de Partal, la nueva revolución de Internet va a ser más rápida y amplia, ya que a través de los teléfonos móviles abarcará a toda la población.

La segunda parte del libro trata de Documentación, Bibliotecas y Archivos, en cuatro capítulos. El primero de ellos —el cuarto capítulo de la obra— tiene por título *Las bibliotecas universitarias: compromiso con el acceso abierto a la información científica y académica*, y es desarrollado por Paula Quintano, Bibliotecaria de la Escuela Politécnica Superior de la Universidad de Mondragón. El concepto de biblioteca universitaria ha evolucionado desde un modelo tradicional y estático hasta los actuales Centros de Recursos para el Aprendizaje y la Investigación (CRAI), centros dinámicos donde se integran todos los servicios y recursos necesarios para el acceso y la difusión del conocimiento. La adopción de este nuevo concepto supone un empuje esencial para la relación de la Universidad con el movimiento *Open Access*, el acceso digital libre a la información científica y académica. El capítulo analiza los principales productos de información OA, los repositorios institucionales y los recolectores de ciencia abierta, las plataformas de revistas de acceso libre (OAJ) y los repositorios de objetos de aprendizaje (OCW). Y, por supuesto, habla de la gestión de los derechos de autor y la propiedad intelectual en la información de acceso abierto, a través de iniciativas como *Copyleft* y licencias *Creative Commons*.

En el quinto capítulo, Susana Araiz, Jefa de bibliotecarios en la biblioteca Koldo Mitxelena, muestra cuál es la función de esta biblioteca emblemática, en una contribución que lleva por título *Dando a conocer los ámbitos y los servi-*

cios de la biblioteca Koldo Mitxelena. La identidad de esta biblioteca se basa en el equilibrio entre lo tradicional y lo moderno y, para explicarlo, la autora repasa su evolución, haciendo hincapié en las iniciativas encaminadas a ampliar el espacio y los servicios, y presentando sus proyectos, dudas y metas.

En el sexto capítulo Fernando Juárez Urquijo, Bibliotecario de Muskiz y responsable de la web del ayuntamiento de esa localidad, comparte con nosotros su reflexión sobre el futuro de la biblioteca, bajo el título *Influencia de la tecnología en los usuarios, los profesionales y en las estructuras de las bibliotecas. ¿Hacia dónde se dirigen nuestras bibliotecas tradicionales? Una reflexión irreflexiva*. Libros, estanterías, papel, silencio... son las imágenes que nos vienen a la mente cuando oímos la palabra biblioteca; y también conocimiento. Pero, si la pregunta fuera «¿dónde buscamos información?» enseguida se nos aparecerían las pantallas. Si esto es así, ¿cómo se están adaptando los bibliotecarios al desarrollo de las tecnologías de la información y comunicación? ¿Qué tipo de servicios prestan? ¿Qué se hace hoy en día en las bibliotecas para ser el puente entre la información y los usuarios? Responder a éstas y otras preguntas será el objetivo del capítulo.

Joaquim Llansó Jefe de Sección de Gestión de Documentos y Archivo General de la Universidad Pública de Navarra (UPNA) analiza, en el séptimo capítulo, las tendencias y retos que se están produciendo en esa área, bajo el título *Los archivos y la gestión de los documentos hoy: tendencias y retos*. Los archivos y su tratamiento técnico han evolucionado al compás de lo que lo han hecho las necesidades administrativas cotidianas de las organizaciones y del impacto generalizado de las tecnologías de la información y de las comunicaciones en las relaciones entre las personas. De hecho, este impacto en la sociedad explica que los profesionales de los archivos se hayan adaptado a los nuevos tiempos incorporando a su denominación de «archivero» la de «gestor de documentos». Varias han sido las razones para estos cambios, tanto de percepción de las necesidades como de orientación profesional. Las nuevas tendencias evidencian nuevos retos, que emanan de novedades en áreas tan dispares, pero a la vez interrelacionadas, como la legislación, la normalización internacional, la evolución de las necesidades de la sociedad, los requisitos de competencia profesional (formación) y la progresión tecnológica. El trabajo trata de contextualizar esas interrelaciones y trazar un horizonte sobre la previsible evolución de la gestión de los documentos y los archivos al servicio de la sociedad.

La tercera parte del libro examina actividades específicas. El capítulo octavo trata sobre cómo elaborar un producto informativo concreto: las efemérides. Jo-seba Martín, director del programa «La Jungla sonora» de Radio Euskadi y profesor de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, presenta un trabajo bajo el título *Efemérides en la radio: cómo personalizar datos que están en manos de todos*. En Internet son abundantes las webs con datos de efemérides, y muchos servicios trabajan especialmente datos temáticos (ciencia, música, meteorología, deporte...). En este contexto de abundancia, para el periodista la cuestión será cómo producir valor a través de la personalización de toda esa información.

El libro termina con dos trabajos de Fernando Fernández de Aránguiz Urteaga, consultor en documentación de la empresa Odei, S.A. En el capítulo noveno, *Las*

redes sociales profesionales. Mi experiencia en LinkedIn, sabremos que una red social profesional sirve para conocer personas de un ámbito de actividad y que es una buena herramienta para intercambiar experiencias profesionales. LinkedIn, la red profesional más conocida hoy en día, contiene los siguientes elementos: perfiles profesionales, redes de contactos y grupos de debate (estos últimos sirven para compartir experiencias y conocimientos).

Aplicaciones prácticas de los códigos QR es el último capítulo de la obra. Gracias a los códigos QR, se establecen hiperenlaces con los objetos físicos y, sin que los usuarios deban teclear nada, encontrarán información a través de los aparatos móviles. Crear códigos QR es sencillo y gratis y, merced a su utilidad, su uso se ha extendido a múltiples áreas: publicidad, museos, bibliotecas, educación... En el capítulo se presentarán algunas de estas interesantes aplicaciones.

I

11 kazetaria

Iban Arantzabal Arrieta

Goiena komunikazio-taldeko Hedabideen Kudeaketa-zuzendaria
Director de Gestión de Medios del Grupo de comunicación Goiena

Laburpena: Zelakoa izan behar da komunikazio talde bat 2011. urtean? Beraz, zelako kazetariak behar dituzte enpresek? Goienako esperientziaren berri izango dugu hemen, non aspalditik dihardutem multimedia-kazetariekin lan egiten. Informazio-gizarteak lan-ereduaren aldaketa eta espezialisten beharra ekarri du; gai konkretuak sakonki landu eta mimatzeko beharra, modu egokiago batean. Eru-aldaketak hamaika lan eta komeria eragin ditu, baina helburua argia da: lehen baino zerbitzu hobea ematea ikus-entzule-irakurleei.

Resumen: Periodistas de hoy ¿Cómo tiene que ser un grupo de comunicación en el año 2011? Por tanto, ¿qué tipo de periodistas necesitan las empresas? Conoceremos aquí la experiencia de Goiena, donde llevan mucho tiempo trabajando con periodistas multimedia. La sociedad de la información ha traído consigo un cambio en el modelo de trabajo y la necesidad de especialistas; la necesidad de elaborar y mimar temas concretos en profundidad, de la forma más adecuada. El cambio de modelo ha traído mucho trabajo y muchos enredos, pero el objetivo es claro: dar un mejor servicio a espectadores y lectores.

SARRERA

Zergatik 11 kazetaria? Besteak beste, gaur-gaurko kazetariari hamaika egiteko eskatzen zaizkiolako eta hamaika hori infinituan ere jar genezakeelako, zalantza barik. Multiataza esango dute hainbatek, 2011ko kazetaria dela diogu guk.

Ezin esan akabatu direnik bakarrik paperean edo bakarrik telebistarako idazten zuten kazetariak, baina gutxiengoan geratu dira hedabide bakarra dutenak langai. Kazetariaren lana aldatu da, mundua aldatu du Internetek. Internetek albistearren tratamendua eta ikuskera ere aldatu ditu. Ikusi besterik ez dago zenbat bat-bateko albistegi dauden sarean eta zein abiada hartzen duten informazioek eta iritziek ezein gertakizunen aurrean.

Hilabetekarietatik asteekarietara, aldizkarietara, egunkarietara eta baita orainkarietara ere egin dugu salto. Horixe dira gaur egungo blogak, gertatzen dena gura besteko sakontasunarekin kontatzeko tresnak. Oraina kontatzen duten tresna hauek, gaur gaurkoz, gainera, baditzute ondoan gertatua ahala idazteko tresna ego-

kiagoak ere: Sare sozialak dira horiek, eta batez ere Twitter. Zeresan handia duena eta handiagoa izango duena.

1. KAZETARITZA BALIO ERANTSIA INTERNETEN

Gure bezeroek (irakurle-entzule-ikusleek) dagoeneko Internet informazio-tresna bat gehiago legetxe ikusten dute eta berak ere berriemaile bihurtuta daude aspalditik. Bezeroa konektatuta dagoen bitartean, milioika erabiltzaile diren bitartean, ezin gaitezke erredakzioetako fenomeno hauei begira geratu, jarrita, lo. Gu izan behar gara fenomeno horren parte. Eta ez parte bakarrik, esango nuke fenomeno horri balio erantsia eman geniezaiokoen jendea garela kazetari jendea, ikus-entzunezkoetako ikasleak, praktiketara etortzen zaizkigun gazteenak, odol berriz eta teknologia berriak bere eginda datozenak/zatoztenak. Hamaika kazetaria, 2011. urteko kazetaria, kazetari multimedia da eta oinarrian izan behar du sareko parte ere kazetari horrek. 11 kazetaria Internet kazetaria da, ez dago bikaintsunaren nota jasotzerik Interneten abila izan barik, Interneten nor izan gabe. Gaur gaurkoz, gure enpresetako lankideen aukera egiterakoan sareko profilei begiratzen diegu ohiko curriculumei baino gehiago. Azkenengo bi lankideen aurkezpen-gutuna beren bloga izan da, esaterako.

2. GOIENAKO HEDABIDEEN MISIO ETA BISIOAK

Gure enpresetan ere gero eta multimediano gara. UPV/EHU-n bertan multimediasunaren gainean hitzaldiren bat emana naiz lehenago ere eta orduko harten gehiago genbiltzan zer egingo genukeen asmatzen. Gaur, hedabide bakoitzaren-dako misio eta bisio bat idatzi ditugu eta horiek enpresako bazkideon artean idatziak izateak balioa ematen die:

2.1. Goiena.net misioa

Bertako informazioa eta bertakoei eragiten diena ematen dugu, objektiboa eta kontrastatua, eta ZERBITZU INFORMAZIO zehatza, eguneroko bizimodurako erabilgarria. Albistea gertatzen den momentuan eta hortik aurrera, gertaerak jarrai-pena eskatzen duen heinean osatua gure edo gureak ez diren baliabideekin.

Nagusiki debagoiendarrei zuzentzen gatzaizkie, euskaraz, eta parte hartzeko bideak zabaltzen dizkiegu, esateko dutena konpartitzeko, eta iritzia sortu edo aberasteko konfiantzan oinarritutako komunitate sendoa eratuz. Loturen bidez, interesarri jotzen ditugun beste eduki batzuk ere ipintzen dizkiegu eskura goiena.net-en erabiltzaileei: kulturakoak, aisiaidikoak...

2.2. Goiena.net bisioa

Debagoineneko esparrura mugatzen den informaziotik haratago, debagoiendarentzat garrantzitsuak izan daitezkeen gaia identifikatzen daki eta seriotasunez eskaintzen ditu. Interaktibitatea lortzen du erabiltzaileen artean, kazetari eta erabiltaile komunitate plural bateko kide bihurtuaz. Sasoiko euskarri berriez baliatzeko malgutasuna erakusten du mundu zabaleko toki guztietara iritsi ahal izateko. Erreferentziazko hedabide elektroniko bat izatera ailegatu da bertan nahiz kanpoan bizi diren debagoiendarentzat; eta interesgarria, gainerakoentzat ere. Euskarazko hedabide elektronikoetan aipatua da hizkuntzarekiko kalitate parametroengatik.

2.3. Goiena telebista. Misioa

Tokiko informazio egiazko eta kontrastatua oinarri duen eta adin tarte guztiei zuzentzen zaien telebista plural eta parte hartzalea egiten dugu gure profesional eta kolaboratzaile sare garrantzitsu baten bidez eta ikuskera desberdin guztiei tokia emanaz. Albisteak emateaz gain, entretenitzea, komunikatzea, informatzea eta heztea helburu duena. Barne programazioa oinarri izanda, beste euskarazko telebista batzuen saioekin osatzen dugu parrilla eskuadreko izateari Euskal herriko dimentsioa erantsiaz. Euskarri eta azpiegitura berriei irekia, uhinez eta kablez emititzentz, internet, telefonia eta beste hainbat bide erabiliaraz.

2.4. Goiena telebista. Bisioa

Gure esparru naturala Debagoinen izanda ere, muga horiek gainditzen dituen euskarazko telebista, bereziki entretenigarria, baina era berean eduki kontrastatuak, osatuak, pluralak, modu erakargarrian aurkeztuta eskaintzen dituena. Ikus-entzuleekin, komunitatearekin, elkarrengalea izango den telebista da: bereziki, teknologia berrieik, sareak, eskuko telefonoak eta abarrek, eskaintzen dituzten aukerak aproba txatzet edo horiei esker, batik bat debagoiendarrei eskainitako eta debagoiendarrekin eginiko telebista izanda ere, beste batzuei ere irekia da. Telebista dinamikoa, teknologia berriei eta berritasunei irekia, eta uneoro hauek eskaintzen dituzten aukerak aproba txatzetzen daki. Debagoiendarrek lehenesten duten telebisten artean dagoena.

Euskara, tokikoa nahiz batua egoki eta zuzentasunez landu eta erabiltzen ditu, eta beste hizkuntza batzuetan eman daitezkeen eduki interesgarriak errespetatzen ditu azpititulazioa eta bikoizketa erabiliaz eduki horiek euskarara itzultzeko.

2.5. Goiena papera. Misioa

Eduki egiazko, zehatz eta kontrastatuak dakartzan papereko euskarria, eska- tzen duten adin guztietako debagoiendarrei etxera banatzen zaiena. Batik bat, in-

formatzea eta heztea helburu duena: informazio hutsaz gain, aisialdikoak edota zerbitzu informazioak ere lekua duena. Plurala, profesional eta kolaboratzaile sare garrantzitsuaz egina. Iritzi edo ikuskeria guztiei tokia egingen diena, pertsona eta taldeei parte hartzeako aukera eskainiaz. Modu erakargarriari aurkeztuta. Maiztasuna kontuan hartuta, eduki landuago, osatuago eta sakonagoak dakartzana eta analisiari eta iritziari tarte zabala eskaintzen diona. Debagoieneko herrietako informazioa oinarri duena. Euskara hutsean idatzia.

2.6. Goiena papera. Bisioa

Debagoiendarrek lehenesten duten papereko euskarria. Egunerokotasuna helburu izan barik, baina oinarri izanda, gaurkotasuneko edukiak beste modu batera lantzen eta aurkezten dituena, bai edukiz eta bai formaz: sakonago, analisi edota iritzi gehiagorekin, luzeago, patxada gehiagoz... Eduki aukeratuagoak, esklusibo edo bakarrak, beste inon irakurri ezin daitezkeenak jasotzen dituena. Eztabaida, gogoeta eta hausnarketa bultzatzen dituena. Kritikoa, plurala, ikuspuntu ezberdiniei leihoa irekitzen dizkiena. Eta konprometitua komunitatearekin eta eskualdearen garapenarekin. Euskara zuzen, egoki, ulergarri eta aberatsean idatzia.

Gure hedabideetan misio eta bisioa definitzera heltzeko bidea egin behar izan dugu, bakoitzaren hizkuntza errespetatuta, bakoitzaren erabiltzaileak aztertuta, hainbat teoria mahaigaineratuta, eta batez ere, gure eguneko jardunera egokituta.

3. FORMAZIOA NEGOZIO ALDAKORREAN

Bideak lehenengo formazioa eskatzen zuen, eta egin da: prestakuntza jaso dugu hizkuntza ezberdinetan, eta tresneria diferenteetan. Hau ez da erraza izan lehengo kazetariekin oso prestakuntza fokalizatua ekartzen zutelako. Kazetaria, gaur, jantziago dator tresnetan, baina ahalegin berezi bat egin behar izan da kazetaria bi-deokamera hartu eta erreparorik gabe joan dadin notiziaren bila, argazki-kamera ere eraman dezan eta han jasotakoa hedabide bakoitzari dagokion hizkuntza berezituan kontatu dezan. Erredaktoreak teknikoago izaten trebatu ditugu eta baita teknikariak lehen baino kazetariago izaten ere. Hor daude urtetan egindako ikastaroen zerrrenda honen ebidentzia moduan. Sinesten dugu formakuntza jarraian eta are gehiago gu gabiltzan negozioan. Aldakorra, eten barikoa eta azkarra.

Formazio prozesuak luzeak dira. Konbentzimendua eskatzen dute. Mesfidantzak gainditzea. Gaur, gure kazetarien % 80 gai da telebistako albiste baten alderdi guztiak edo gehienak lantzeko. Elkarritzketaztalearekin geratu, galderak prestatu, grabatu, bisionatu, transkribatu, korteak atera, editatu, ahotsa sartu, paperekorako prestatu, Internetera igo... Gaur, kopuru hori beste ebidentzia bat da.

Une honetan Erredakzio bakarrera jauzia egiteko moduan gaudie eta aspalditik etorkizunaz idazten genuena sekula baino gertuago daukagu. Bulegoek banatzen gaituzte, eta bulego bakarra laster etorriko bada ere, dagoeneko leku bakarrean

egongo bagina moduan hasi gara lana egiten. Horretarako zuzendaritzak apustu handia egin du eta zuzendariok ere berkokatu behar izan dugu egitura berrian. Kazetariekin egin duten esfortzu handiari emandako erantzun bat izan da. Gaur gaurkoz, 2011tik hasita, edukien zuzendari bakarra dugu hedabide guztieta rako eta anabasa hori kudeatu eta antolatuko duen beste zuzendari bat, hedabideetako antolakuntza zuzendarria.

Badaukagu jakituria eta antolakuntza eredua ari gara lantzen. Falta zaigu oraindik, eta lanean ari gara, erredakzio bakarrari dagokion ekoizpen prozesua lantzen. Prozesua landu beharra dugu, eta hemendik sor daitezkeen hobekuntzak neurtu. Hobekuntzak baldin badaude, efizientzian irabazten badugu, orduan bakkrik esan ahal izango dugu enpresarentzat balio erantsi handi bat ekarri duen aldaketa bat izan dela. Momentuz ez dugu motiborik hanka sartzen ari garela esateko. Kazetariekin irabazi dute autonomian, ari dira hainbat hedabidetan, baina gai bakkarekin, edukiak sakonago lantzen ditugu, heldu gara hedabideetako hizkuntzak bereizteria, kazetari jantziagoak ditugu bai teknikan eta batez ere edukietan.

4. KAZETARI SENA

Eta gaurko 11 kazetaria enpresak eskatzen dion zurruntasun horretan geratu behar da? 11 kazetaria lotzen dut pasioarekin, kazetari senarekin, egiteko gogoarekin, profesioa maite duen hori da 11. Badira horrelakoak eta horrelakoak dira eskatzen direnak. Seguruenik gauza bera eskatuko dute abokatuen bulegoetan: 11 abokatua; edo automozioan 11 mekanikoa; edo Correos-en 11 postaria. Egia da, baina guk dihardugun langintza hau, kazetaritza eta ikus-entzunezkoetako karreretan ikasten den langintza hau aldakorra da. Oso aldakorra da eta ez dauka zerikusirik orain 10 urte eskatzen zen kazetari tipoak eta gaurkoak. Gure enpresan azkenengo lanera etorriko diren bi ikasleak dira beraien bloga ondo elikatuta duten bi ikasle, idazten dakitelako ikusi dugun bi, erremintak bere egin dituztela ikusten dugun ikasle bi. 2011n kazetarien aukeraketak ere beste era batera egiten dira eta bestela jardutea 2000. urtera begira jardutea litzateke.

11 kazetariak, hala ere, ardura handiena behar duen gaia edukiarena da. Hortik hasten da kazetari onaren definizioa eta kazetari onak behar du konpromisoa izan idazten edo esaten duen horrekiko. Eta zertan aldatu da 11 kazetaria 10 kazetaritik?

- Behar dugu euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez (gutxienez) ondo komunikatzeko gai den kazetaria.
- Behar dugu mundu ikuskerarekin konpromisoa duena. Egiten duen edukiari ahalik eta zabalkunde handiena emateko prest dagoen kazetaria.
- Jantzia teknologia berrietan eta batez ere gaietan (zailagoa baita).
- Bere sinadura marka izatearekin amesten duen kazetaria.
- Mundu digitalerako prestatua dagoena.
- ...

5. 11 KAZETARIA EUSKARA GOGLERATZEKO

Eta hau dena zertarako? ba gure enpresaren ikuspuntutik, behinik behin, behar dugulako euskarazko eduki osasuntsua munduan kokatzea. Gure txikitasunetik, baina aurrera begira. Gure txikitasunetik, baina maila globalean pentsatzen.

Gure edukiek balio behar dute euskara Google hizkuntzetako bat izateko eta horretarako edukiak sortu eta libre utzi behar dira, lizentzia egokiekin.

Copyright-ak ez du balio helburu hauetarako. Gaur egun, artxibatzeko modua sarean da, Internet da. Argazkiak han ditugu, gure bezeroekin konpartitzen ditugu. Berdin bideoak, baita papereko edukiak ere. Libre daude, Creative Commons aittortu-partekatu lizentziapean. Horrek ere laguntzen du Google hizkuntza izan da-din. Egin genezake, ahala badugu, materiala badugu, hiztun kopurua ere badugu, gure hizkuntzak ez du estaturik, baina 8. probintzia hori irabaz genezake. Sarean jarri behar ditugu indarrak eta helburu horrekin jokatu behar dugu. Ingelesak, gaztelaniak, txinerak... bidea egin dute eta nagusi dira. Guk, ordea, «beti penetan» jardun beharrean egiteko garrantzitsu bat dugu, Google hizkuntza bihurtzea, hizkuntza globala izatea.

5.1. Zertarako hizkuntza globala?

- Ezer baino lehen ez dugulako gura euskara hizkuntza globala ez izatea.
- Nor izateko sarean ondo kokatuta egon behar dugulako.
- Globala izanda agerikoagoak garelako, eraginkorragoak.
- Globala izanda euskaldunak ez direnengana ere helduko garelako.
- Globala izanda itzulpen automatiko garatuagoetan pentsa genezakeelako.

5.2. Globalean lehiatu

Globalean lehiatu behar dugu euskaldunok eta horretan garrantzitsua da 11 kazetaria ere. 11 kazetariak behar du sortu euskaraz eta zabaldu. Zabaldu berriz eta zabaldu hirugarren aldiz.

Egiten duena sarean utzi lizentzia egokiaren pean, tuiteatu, sare sozialetan mutitu, blogean jarri... ekimenok norbanakoena ere badira eta inoiz ezin dugu ikuspuntu hori galdu. Gaurko dokumentaziorako sarrera askea horixe da, askea izateko askotarikoa izan beharra dagoelako eta gutako bakoitzak egiten dugulako aniztasun hori. Mentalitate aldaketa bat eskatzen du honek. Tokikoan eragiten jarraitu behar dugu, gure arma nagusietako bat gertutasuna da eta, baina pentsatu, pentsatu globalean egin behar dugu.

Guk kultura jakin batetik edan dugu: edukiak sareratu, ageriko jarri eta elkarbanatzeko kulturatik, eta horregatik daude Goienak sortzen dituen eduki guztiak bezeroen esku. Amaitu dira edukiak tiraderan gordetzeko egunak. Diru publikoz lagunduak izan eta ez dago sortutako edukiak berriz publikoari ez ematerik. Ze-

lanbait jasotakoa itzultzeko modu bat ere bada edukia sortu eta sareratzea eta baita lizentzia egokiekin sareratzea. Ez dugu ezer galtzeko eta euskaldunak ia edozer lortu ahal izango du euskaraz; bizi ahal izango da euskaraz sarean, baita euskaldunok sortu ez ditugun eduki horiek ere euskaraz kontsumitzeraino.

6. EUSKARATIK EMAN, JASOTZEKO

Gure lana ez dago dena itzuli eta dena sortu behar horretan. Pentsatu behar dugu asko dugula irabazteko eta egiten dugun guztia agerian jarrita bueltan ere etorriko dela euskarazko edukia. Edo oraindik pentsatzen dugu Hollywood-eko film guztiak euskarara itzultzen jardungo dugula estreinatu eta handik auskalo zenbat egunetara originala baino okerrago ikus-entzuteko? Zenbat film gehiagotan Dalas-eko JR-ren ahotsa? Ez, erabaki beharko dugu euskaratik zer eman geniezaiokeen munduari. Asko dugu emateko eta gehiago jasotzeko.

Horregatik, Goienaren estrategia dokumentala sarean kokatua dago, eduki libreetan eta agerikoetan. Agente bat gehiago gara eta eduki kopurua da gure ekarria euskara globalago izan dadin. Hedabideetatik egin genezakeena unibertsitatetik egindakoaren osagarri behar du izan, enpresa teknologikoek egin dezaketenaren lagungarri eta gutako bakoitzak egingo dugunaren lagungarri. Izan ere, euskara globala izango bada euskaldunok egingo dugu global.

GALDERAK

1. Interneten dena doakoa baldin bada, dena irakurri, aldatu, kopiatu... ahal bada, nondik etorriko da finantziazioa?

—*Goiena* Taldean, publizitatea finantzabidearen ehuneko handi bat da. Iazko autofinantzaketa %67a izan zen, eta bestea diru-laguntzen bidez jaso zen. Baina guk ere, Partalek dioen bezala, aurrera begira dihardugu. Enpresa bat sortu dugu, Batura izena duena, eta aplikazio pilo bat egiten ari da mugikorretarako (adibidez, Bilboko jaietan txosna bakoitzaren kokagunearen berri ezagutzeko), eta ez Euskal Herrirako soilik. Lehengo egunean lankide bat Ekuadorrera joan zen aplikazio batzuk saltzera. Munduan saltzeko kapazak garela sinetsi behar dugu, eta posible da. Eta euskaratik posible da, eta itzulpenetik ere, orain ingelesetik egiten den moduan. Eta guk egiten ditugun produktuak besteek guretzat egiten dituzten modu koak dira. Eta badakigu saltzen; beno, gutxi dakigu saltzen, baina egiten badakigu, eta saldu egin beharko genuke hori ere. Gure enpresaren modukoak finantzatzeko bideak horiek dira; eta beste zati handi bat publizitatetik dator. Kanporako zerbitzu batzuk ere egiten ditugu, adibidez aldizkarigintzan: TU Lankide bulletina, zeina kooperatibisten artean banatzen den; udal euskaltegien bulletinak; udaletxeekin elkarlanean beste bat... Hainbat enpresarentzat *community manager* lanak ere egiten ditugu; eta azkena, lehen komentatu dudana, aplikazioak egiten dihardugu.

2. Nola ikusten duzu kazetaritza lanbidea?

—Hori saiatu naiz esaten lehen, «hamaika kazetari» horrek badaukala etorkizuna, baina «hamaika» izan beharra dago, eta tresnak kontrolatu beharko ditu. Bestaldetik, kazetari sena behar da —Partalek «pasioa» esan du—. Ez dakit hori unibertsitatean irakasten den, baina kazetaria izateko kazetari sena behar da. Kazetari sen barik ez dago kazetaririk. Eta gero neurria dago. Gure kasuan, ez zen posible herriz herri mantentzea halako proiektua, txikiegia zen; baina handiegia ere ez da gomeni, estrukturari eutsi beharra dago, neurria izan behar da. Eta neurria izanda, bilatu behar da bakoitzaren lekua. Gure esparrua lokala da, eskualdekoa, gu horretan espezializatuta gaude; hori guk baino hobeto inork ez du egiten. Gu mugitzen garen lekuaren baten bat ibaira jausten bada —lehengo egunean gertatu zen bezala—, gu segituan hor gaude informatzeko: lehenengo Twitterren; gero, telesbista joango da; ondoren, galdeketak egingo dira kalean... Gu hori ari gara egiten. «Hamaika kazetaria», berezitasuna eta sena izanda, nik pentsatzen dut badaingoela etorkizuna.

II

Euskaraz komunikatzea Interneteko uholdearen garaian: erronkak eta eredu aldaketa

Idurre Eskisabel

Berriako Interneteko eta multimediacio arduraduna
Responsable de Internet y multimedia de *Berria*

Laburpena: Interneten erabateko hedatzeak iraultza ekarri du komunikazioaren arlora, eta horrek jokaleku aldakor eta zailean jarri ditu komunikabide tradizionalak oro har, eta, bereziki prentsa. Are eta jokaleku ezegonkorragoan gu bezala hizkuntza gutxitu batean aritzen diren medio txikiak. Bainaxanpon guztiek izaten dute aurkia bezala ifrentzua, eta iraultza horrek zailtasunak ez ezik komunikatzeko aukera berriak ekarri ditu berarekin. Multimedia kontzeptuaren txertaketa, itsaso globalean gure bereizgarrien bilaketa eta lanketa, eta hartzai-leari erabiltszailerako bidea egiten laguntzea funtsezkoak dira. Horiek dira *Berriak* sarerako egin dituen apustuak, eta horren emaitza dira *berria.info* berritua, *hitz.a.info*-en ekosistema berria eta *berriketan.info* informazioaren euskarazko sare soziala.

Resumen: Comunicación en euskara en la era de Internet: retos y cambio de modelos. La llegada e implantación masiva de Internet en nuestra sociedad ha traído una auténtica revolución al mundo de la comunicación, llevando así a los medios de comunicación tradicionales (especialmente a la prensa escrita) a constantes retos y cambios de modelos. La situación de los pequeños medios en euskara u otras lenguas minorizadas como la nuestra es aún más desequilibrada. Pero toda esta revolución también tiene su cara amable: conlleva nuevas formas de comunicarse. La implantación del concepto multimedia, la búsqueda de lo nuestro en todo el mar global, y enseñar al receptor el camino para llegar a ser usuario son necesidades básicas. Éstas son las apuestas que hace *Berria* en su camino hacia la Red, que ya podemos probarlas en la renovada web *berria.info*, *hitz.a.info* o *berriketan.info*, la red social de la información en euskara.

1. IRAULTZA BATEN EGIAZTAPENA

Pernandoren egia batetik abiatuko naiz: Interneten hedapenak iraultza ekarri du hedabideetara. Komunikazio arloko teoriko adituak eta komunikazio arloko profesionalesak ez ezik, jende arruntak ere badaki hori. Egun, sarri entzuten dugun zerbaida, eta iritzi publikoan hitzetik hortzera dabilen zerbaida izateaz gain, egia da.

Baina, hala ere, baieztapen horretatik abiatu nahi dut, uste dudalako ohiko hedabideei kosta egin zaigula horretaz jabetzea, sareak ekarritako aldaketaren han-

diaz ohartzea. Jakina da: arotzaren etxearen zotza burduntzi. Denboretan aitzakiaren ibili gara, Internet bidez zabaltzen denaren kalitatea gutxiesten, eta sarerako gure proposamena mugatzen: kasurik onenetan, lehenagoko euskarrietarako egiten genuen produktu bera —bere horretan, iraultzara egokitut gabe— txertatu nahi izan dugu euskarri berriean. Zezena gain-gainean ikusi dugunean konturatu gara bestelako logika batzuk nagusitu direla, eta gure eredua dinamika berriekin uztartzea ez dela hain simplea.

Baina *mea culpa*-ren ostean, ikus dezagun Pernandoren egia horrek azpimarratzen duen iraultza zertan gauzatzen den. Interneten hedapenak, eta, bereziki, azkenaldiko harreman-sare eta gailu berrien zabalkundeak nola eragin duten komunikazioaren arloan.

Nire ustez, lau ezaugarri dira funtsezkoak:

- *Medioen hibridazioa. Kutxa itxietatik multimediala.* Lehenago medioak ondo bereizita zeuden: prentsa idatziak bere esparru eta ezaugarriak zituen, bere narratiba propioa. Berdin irratia eta telebistak. Orain, gune berean batzen eta nahasten dira: testua eta irudi estatikoa ikus-entzunezkoarekin batera dator, guztien ezaugarriak nahasten dira, eta narratiba berrietarako aukera sortzen da. Lehenagoko medio zurrunden kutxa itxiak atzean utzi eta multimediala egin da jauzi.
- *Berehalakotasuna eta irisgarritasuna: etengabeko lotura.* Sarearen hedapenarekin, eta, batik bat, azken gailu eramangarrien zabalkundearekin (telefono adimendunak eta tabletak), etenik gabekoa da informazio-jarioa ez ezik, baita hura jasotzeko aukera ere. Gertatu ahala eman eta jaso daiteke informazioa hainbat formatutan —are, berehalakotasuna eskatzen da—, eta edozein momentutan har daiteke edonondik. Etengabe informazioaren jarriora lotuta dago erabiltailea.
- *Hartzailearen esku-hartzea: erabiltailearen hedapena.* Kazetariak informazioa eman eta herriarrak jaso, hori da, hainbat fiabardura gorabehera, orain arteko komunikazioaren paradigma. Internetekin lotutako azken ekarpenek, arestian aipatutako sare sozial eta gailuek, noranzko bakarreko fluxu horretan hartzailearen esku-hartzea ahalbidetu, erraztu eta bultzatu dute. Ondorioz, informazio emaile eta hedatzaile bihurtu da hartzailea bera ere, eta lehenago hitzaldiaren antza zuena solasaldi bilakatzen ari da. Gainera, emaile izateko gaitasuna ez ezik, jasotako informazioa norberaren galbaheitik iragazteko eta nahi den erara antolatzeko aukera ematen dute tresna berriek: lehenengo hedabide zurrun eta itxien ordez bakoitzaren interes eta gustuen arabera moldatzen diren guneak ditugu orain, informazioaren eta astialdi eta entretenimenduaaren artean bereizketa handirik egiten ez dutenak. Funtsean, hartzailea, gero eta gehiago, informazioaren eta sareen era-biltzaile da.
- *Doakotasuna.* Ohitu gara dena dohainik jasotzen: informazioa, entretenimendua, zerbitzuak... Behin aztura hori hartu eta gero zaila da inor ordaintzen jartzeari.

2. ONDORIOAK: AURKIA ETA IFRENTZUA

Horiek, gutxi-asko, iraultzaren ezaugarriak. Eta ondorioak? Ez, ez izan zalentzarik: ez dira makalak. Hedabide tradizionalen artean, dudarik gabe, prentsa idatzia da uholdeak gehien erasan dion eremua. Paperaren desagertzea iragartzen duten apokaliptikoak gero eta gehiago dira eta ematen dituzten epeak gero eta laburragoak. Ez naiz sartuko profezia eta apustuetan, baina paperezko egunkarien salmentak goitik behera doaz mundu osoan, eta gazteek, oro har, baztertzen duten produktu bat da. Zertarako erosi paperezko egunkaria han jasotako edukia —edo eduki horretatik niri interesatzen zaidana eta nik nahi dudan bezala antolatuta— ordenagailu, tablet edo telefonoan esku-eskura badut? Are eta gehiago testuinguru ekonomiko zailetan. Beraz, salmentak behera, eta, nola ez, baita paperaren diru iturri nagusi izan den publizitatea ere.

Orduan, batetik, prentsa idatzia kinka larrian. Eta telebista, eta irratia? Dendarik gabe, prentsaren kasuan baina astiroago bada ere, telebistaren kasuan hura ikus-teko eta harekiko harremana izateko modu eta aukera berriak ari dira zabaltzen: telebista aparailutik askatu da edukia eta gailu berrietan nahi direnean eta nahi den tokitik ikus daitezke. Halaber, konbergentzia ari da gertatzen: pantaila bakarrean biltzea lehenago hainbat euskarritan jaso beharrekoak: telebistaren edukiak ikus-tea, nabigatzea, ohiko prentsatik eratorritako albistari digitalen kontsulta, hainbat zerbitzuren erabilera... Horren guztiaren ondorioz, telebista aparailuaren aurreko kontsumo orokor eta masiboa amaitzen ari da, eta telebista edukien kontsumo pertsonalizatu eta zatikatua gainditzen —kate baten programaziotik interesatzen zaidan gauza zehatz bat hartzen dut; are, programa horretatik intentsoena edo erakargarriena den zatia—.

Eta horri guztiari erantsi behar zaio lehen ez bezala teknologia berriei esker edonorentzat erraza dela ikus-entzunezko edukiak sortzea eta zabaltzea, eta era-biltzaile arruntek igotako edukiak behatzea gero eta zabalduago dagoela. Nolabait, lehiakide handi bat sortu zaio ohiko telebistari.

Ziurrenik, bere ezaugarriak tarteko irratia da, oraingoz orain, Interneten azken iraultzaren eragina gutxien nabaritu duena, baina medio horretan ere konbergentzia zein kontsumo pertsonalizatu eta zatikatua gero eta ohikoagoak dira.

Baina arestian aipatu bezala, euskarri idatziko hedabideak dira astinduenak, beren burua desagertzeko zorian ikusi dutenak: ez dezagun ahatz, edukien sorkuntza eta banaketaz haratago, negozio eredua jarri du zalentzan iraultza honek. Horrez gain, lehiakideen kopurua esponentzialki hazi da: kioskoko dozena bat lehiakideren beharrean milaka eta milaka albistari digitalen eskaintza dago sarean, klik bakar batean. Pantaila aurreko erabiltzaile potentzialak asko, baina lehiakideen eskaintza ere itzela. Beraz, zelai agor xamarra ohiko hedabideentzat, batik bat, prentsarentzat.

Eta gainera, euskara bezalako hizkuntza hedaduraz txiki eta estatus soziolinguistiko murritzukoan ari bazara, are eta agorragoa zelaia. Izan ere, euskarazko prentsa beti izan da ur tanta hedabide handien itsasoan, baina kioskoko itxituratik kanpo oraindik eta ur tanta txikiagoa: egun, mundu guztiko albistari digitalak

ditugu etxekoak bezain eskura, eta erabiltzaileak trebatuta daude edukiak *lingua franca*, hots, ingelesez, hartzeko.

Baina dena ez da aldapa, eta batetik desabantaila dena bestetik aukera ere bada. Gauza guztiak dute aurkia eta ifrentzua, eta bien arteko muga ikuspuntuaren ñabardurak ezar dezake. Izan ere, teknologiaren aurrerapenak eta edukiak sortzea eta komunikatzea errazten duten baliabideek ekarri dute iraultza. Bereziki, baliabide horiek eskura erraz xamar izateak. Ondorioz, horrek esan nahi du komunikatzeko aukera berriak sortu direla gurea bezalako hizkuntza txikientzat. Euskara oraingoan garaiz iritsi da komunikazioaren eredu aldaketara, zailtasunak zailtasun, harrapa dezake olatua; horretan ari da.

3. BURUHAUSTEAK: KOMUNIKAZIO EREDU BERRI BATERA

Egia esateko, Interneten azken uholdeko iraultza horrek buruhauste handiak sortu dizkigu eta sortzen dizkigu *Berria-n*, eta egoera berrira nola egokitu da ardua handienetako bat. Itsaso zabal horretan ur tanta txiki izanik nola jarraitu euskaraz komunikatzen, munduaren berri euskaratik ematen. Aurkiaz eta ifrentzuaz aritu garenean aipatutako olatua nola hartu dugu uneoro gogoetagai ez ezik ekintza asmo.

Hasieran esan dut hedabide tradizionalei kosta egin zaigula iraultzaz jabetza, baina horrek ez du esan nahi aldaketen aurrean ezer egin gabe egon garenik. Iraultzaren tamainaz konturatzea nekeza egin zaigun arren, joan gara aro digital berrira zertxobait moldatzen, eta ezari-ezarian, ohartu gabe komunikazio eredu berri baten aurrean gaudela, etxeko lan batzuk eginda eta beste asko egiteke.

Aurrerago aipatutakoaren ildotik, medioak multimedia egin zaizkigu: hedabideetan atari eta albistarietan testua, irudi estatikoa, audioa, ikus-entzunezkoa... dena elkarrekin datorkigu, eta informatzeko aukera berriak zabaldu dira. Baita narratiba berriak osatzeko ere —dela hipertestuaren bidez, dela ikus-entzunezkoaren eta testuaren uztarketaren bidez...—. Halaber, berehala konta eta jaso daiteke gertatutakoa; are, baita aldi berean ere —gero eta ohikoagoa da zuzeneko kontaketa, bai ikus-entzunezko euskarrian, bai testu laburren segidaren bidez—. Horretara guztira egokitu gara nola edo hala, batzuetan gehiago asmatuz, bestetuetan gutxiago, baina egin ditugu multimediarako urratsak, besteak beste, *Berria TBren* bidez.

Baina, nire ustez, aldaketarik handiena ohiko emaile-hartzaile ereduaren apurketan dago: sare sozialen eztandaren ondotik aurreragoko hartzaila hutsa sortzaile eta emaile bihurtu da, eta sarera informazio bila urreratzen direnek hedabideek eta kazetari profesionalek proposatutakoa adina estimatzen dute beste bide horietatik datorkienna. Hemen zaudeten gazteen adinkideen artean informazioa jasotzeko ohiturez galdetzen dudanean, gero eta gehiago erantzuten didate Tuenti, Facebook eta Twitter dituztela iturri, eta sare horietako mezu, lotura eta gomendioekin asetzan dutela beren informazio premia. Informazioarena eta entretenimenduarena, lotuta baitator guztia, gero eta bereizgaitzago.

Funtsean, gertatutakoa besteei kontatzea izan da egundaino kazetaritzaren funtsa, informazioaren eta hartzalearen arteko bitartekaritza egitea. Kontakizun bat zen komunikazioaren ardatza. Orain, gero eta gehiago, norberak kontatzen du gertatutakoa, galtzen ari da bitartekaritza. Horrenbestez, kontakizunaren ordez elkarritzeta ari da bihurtzen komunikazioaren zutioin.

Hori guztia kontuan hartuta, *Berria*-n argi ikusten dugu etorkizuneko erronka nagusietako bat sarean dugula, etorkizunean euskaraz komunikatzen jarraituko badugu hor lehiatu behar dugula. Baino itsasoan hain zabala izanik eta gu hain ur tanta, nola egin? Bada, hain justu, uste dugu itsasoaren zabaltasuna balia dezakegula gure alde. Izan ere, aukeraren zabalak —komunikazioaren arlokoak ez ezik, bizitzaren eremu gehienetakoak— nora ezean jartzen du jendea, eta nortasunen lanketarako bideak eta komunitateak bilatzen eta eskatzen ditu. Geure ezaugarri eta bereizgarriak erantzun diezaioke premia horri: euskaraz aritza dugu aldeko, euskaran oinarritutako kulturaren berri ematea, euskaratik abiatutako mundu ikuspegia. Eta gauza zehatzagoetara hurreratuta eremu geografiko hurbileko gertakari eta albisten berri emateko gaitasuna. Boladan diren hitzak erabiliz, globala eta lokalua uztartzekoia. Informazioaren jarioan, kantitatean, ezin dugu lehiatu gure albo (edo gain) hizkuntzetako hedabide digitalekin: kalitatea eta bereizgarrien eskaintza ditugu erronka.

Bestalde, hartzalea gero eta erabiltzaileagoa den komunikazio-eredua gaina hartzen ari bada ere, fluxuaren aldebikotasuna parekoa izatetik urrun dago oraindik ere; gehiago, ez dut uste inoiz erabateko simetriara iritsiko garenik. Hau da, jendeak mila egiteko ditu egunerokoan, eta ezin du izan etengabeko sortzaile eta emaile. Jasotzailea huts izateko beharra eta zilegitasuna ere badu. Horregatik, beti beharko dira eduki sortzaile eta emaile diren pertsona eta guneak —beste eztabaidea bat da zenbat izango diren eta zeintzuk haien lan baldintzak—. Areago, informazioaren erauntsia inoiz baino handiagoa izanik, eta norberarentzako astia hain eskas, erabiltzaileak gustuko edukien aurkikuntza erraztuko dioten gidariak ere behar ditu, eta, ildo horretatik, galbahe lan hori egitea ere bada gero eta gehiago kazetarien egitekoa.

4. MULTIMEDIA, HURBILTASUNA ETA KOMUNITATEAREN LANKETA

Prentsarentzat itsaso zabala ez ezik ezezonkorra da gaurkoa. Egunero-egunero sortzen dira ekaitz eta olatu berriak, eta unean-unean horiei erantzuteaz gain, epe luzeagorako noranzkoak hartu behar dira. Hori egin du duela gutxi *Berria*-k: iraultza eta aldaketen inguruko hausmarketatik abiatu eta etorkizunera begirako noranzkoa hartu. Hona, laburbilduz, ardatz nagusiak:

— *Papereko erredakziotik multimediaira*. Euskaraz komunikatzen jarraituko badugu, eta hori da Berria Taldearen helburu eta egitekoa, sarearen aldeko apustua egin behar da. Ondorioz, paperera begirakoa izateari utzi eta erre-dakzio multimedia bihurtzeko urratsak egingo ditu *Berriak*. Kazetariak ez

- dira aurrerantzean papereko kazetariak edo sarekoak izango, baizik eta bi arloetarako sortuko dituzte edukiak, eta bi produktuen gidaritza ere batera eramango da. Nolanahi ere, aztura askoren aldaketa dakar bilakaera horrek, eta urraskako trantsizio gisa planteatzen da. Halaber, aspalditik lantzen ari garen eskaintza multimedia sakontzeko eta hobetzeko ahalegina egingo da.
- *Bereizgarrien plusa landuko da sarean ere.* Batetik, agentzia bidezko informazio masifikatu eta errepikatuaren ondoan gure kazetariekin landutakoa es-kainiko da euskarri digitaletan ere, haien behakoaren gehigarria duena, eta ahal denean, sarerako propio sortutakoa (zuzeneko kontaketak, adibidez). Bestetik, garrantzia berezia hartzen du hurbileko informazioaren lanketak. Horrela, informazio lokala txertatutako da *berria.info-n -Hitzen* zein tokiko beste hainbat hedabideren elkarlanari esker, eta, gainera, Hitzek areagotu egingo dute sareko produktuen lanketa, ahalik eta gune hiperlokalenak sortuz eta sustatzu.
 - *Berriketan.info-ren bidez komunikazio paradigma berria bultzatu eta landuko da:* hartzaleari erabiltzaile izatea sustatuko eta kazetaria erabiltzai-learekin elkarritzetan jarriko. Informazioaren inguruko sare soziala da *berriketan.info*: nahi duenak parte har dezake, eta nahi duenak eman dezake bere inguruaren berri plataforma horren bidez. Gainera, *berria.info-n* islauta dago *berriketan-eko* jarioa, eta horrek norberaren mezua milaka lagunengana iristea ahalbidetzen du. Beraz, batetik, komunikatzeko leihoko zabal bat eskaintzen dio jendeari. Bestetik, *Berria-rekin* eta *Berria-ko* kazetariekin harremanetan jartzeko modua dute erabiltzaileek sare sozial horren bidez: beren gustu, nahi eta kritiken berri emateko. Kontrako noranzkoan, erabiltzaileen interes eta gurariak zeintzuk diren jakin dezake kazetariak, eta, ondorioz, hurbilagotik «hitz egin» diezaiokе irakurleari; irakurle zehaztugabearentzat ordez irakurle zehatzagoentzat ari daiteke. Halaber, kazetariak sinadura hotz eta urruna izateari uzten dio, eta nolabait hezur-haragitu egiten da. Gardenagoa da harremana, erabiltzaileak kazetaria gehiago ezagutzeko aukera baitauka. Era berean, arestian aipatu dugun informazio erauntsiaren aurrean kazetariari itsu-gidari lana egiteko modua errazten dio, erabiltzailearen gara informazio hautatuak eta bestelako gomendioak helarazteko aukera baitauka. Oro har, hurbiltasunaren lanketa dakar *berriketan.info* sare sozialak, erabiltzaileari zuzenean hitz egiteko, erabiltzaileari entzuteko, komunikazio-paradigma berriarekin bat eginez, informazioa elkarritzetaren bidez eratzeko.

Horiek dira, oraingoz orain, *Berria-k* komunikazioaren garai berrietara egoki-tzeko bere gain hartu dituen erronkak. Nolanahi ere, argi dugu garaiek ez digitela atsedenik emango, eta ziurrenera, behin betiko konponbiderik gabe etengabeko birmoldaketan eta egokitzapenean aritzea izango dela datozen urteetan gure patua. Gogoz arituko gara, bederen.

III

VilaWeb. 16 años de prensa digital y una nueva revolución (transcripción de la ponencia)

Vicent Partal

Director del periódico electrónico *VilaWeb*
VilaWeb egunkari elektronikoaren zuzendaria

Resumen: Después de 16 años de publicación de un diario electrónico, las redes sociales y los móviles suponen un reto nuevo. Todo lo visto hasta ahora cambia radicalmente y obliga a replantear, por viejos, los diarios electrónicos ante una nueva revolución mucho más acelerada que la anterior.

Laburpena: *VilaWeb*. 16 urteko prentsa digitala eta iraultza berria. *VilaWeb* egunkari elektronikoa duela 16 urte hasi ziren argitaratzen; orain, sare sozialak eta telefono mugikorrek erronka berriak ekarri dizkiete. Orain arte ikusitako guztia goitik behera aldatu da eta, beraz, egunkari elektronikoak berriz planteatu behar dira, zaharkituta geratu direlako; gainera, iraultza berria aurrekoa baino bi-ziagoa izango da.

1. SARRERA

Me pidieron que explicara que el mundo se iba a acabar, y eso voy a hacer. Quiero decir que la web se acaba y voy a contar qué impacto tiene eso en la comunicación, en la documentación y en los usos personales de la red.

Tendemos a olvidar que la historia de Internet es bastante antigua. También lo es la historia de la Informática, que comienza con grandes ordenadores centrales que tienen pantallas terminales conectadas; luego vienen los PCs y más tarde los PCs conectados. Ahora llega la era de los móviles; y toda Internet se mueve en una dirección nueva, que va a plantear enormes retos muy positivos, y también complicaciones.

Quería mostráros una servilleta de Paul Baran, uno de los padres de Internet, quien dibujó en un mapa cómo debía funcionar la red en un esquema con tres ordenadores conectados, porque Internet ya se diseña de modo colaborativo. Esto sucede en los años 50, y no nos damos mucha cuenta hasta que en 1991 Tim Berners-Lee inventa la web. Existe otra servilleta donde Tim Berners-Lee dibujará qué es la web. La web es solo una de las aplicaciones de Internet, pero es la que ha servido para popularizar la red a nivel mundial.

Tim Berners-Lee es un físico documentalista, y la web nace como un proyecto de documentación del Laboratorio de Investigación de Física de Partículas (CERN), en Ginebra. Nace con una concepción de documentalista, y el primer pro-

yecto es mucho más radical de lo que acabó siendo, ya que todo el mundo podía escribir en las páginas de todos, y la información se iba apilando con un sistema de acumulación de versiones. Pero Tim Berners-Lee se asustó (o le asustaron) y retiró esta parte más radical, lanzando el modelo de web que tenemos hoy, más vecino a la televisión, donde los usuarios son sobre todo espectadores. Pero la evolución de Internet continúa, y ahora estamos entrando en una tercera fase caracterizada por la movilidad y las redes sociales.

Cuando por la mañana salgo de casa, abro Twitter y miro qué me están explicando mis amigos que es interesante hoy. Estoy rompiendo con la forma de comunicación tradicional que estaba basada en que existía una empresa, un medio que explicaba las cosas, que llegaba a todos, e influía en la opinión pública, con independencia de su edad, de su ideología... La ruptura se produce por las dos partes. Por un lado, dejan de existir o dejan de ser importantes estos medios tradicionales —en la red ya se está generando más información a partir de personas individuales que a partir de medios—. Y en segundo lugar, la gente ya no está consumiendo medios. Los medios tradicionales viven una crisis sin precedentes, pero también los medios más nuevos, los medios digitales como nosotros —que llevamos diecisésis años trabajando— la vivimos. Soy consciente de que soy muy viejo, de que *VilaWeb* es muy viejo, y de que nos tenemos que enfrentar a una revolución.

El video *Future of Screen Technology* muestra los cambios que se avecinan. Está realizado por una empresa sueca TAT (<http://www.tat.se/>) que trabaja dando forma a conceptos, a cosas que no existen pero que existirán. Lo realizaron para la empresa Apple sobre cómo es el teléfono de «ya mismo» (ellos dicen de 2014). Cuando hay una noticia que nos interesa ampliamos el tamaño del teléfono y lo convertimos en una superficie de diario, y cuando nos cansamos lo cerramos. El vídeo es espectacular. Si llevo en mi bolsillo un teléfono, que en el momento que a mí me interesa lo estiro y se convierte en una publicación, y me permite leer confortablemente, o me permite ver la televisión, o hacer ciertas cosas con comodidad y que sustituye al ordenador ¿quién va a seguir consumiendo periódicos en papel?, ¿quién va a llevar pesados portátiles? Otra cosa es para trabajar tranquilamente en casa... Este es el gran cambio, está en estos teléfonos, y funciona a una velocidad espectacular. Hace tres años ver un teléfono así sin teclas era muy raro, la primera pregunta era «¿dónde están las teclas?». Hoy, la mayoría de los teléfonos ya tienen más pantalla que teclas, y la mayoría carecen de ellas, en tres años ha cambiado completamente la industria del móvil. Hace unos días presentaban el iPad-2 como el inicio de la era post PC.

2. NUEVOS RETOS: MOVILIDAD CON LAS REDES SOCIALES

Si sumamos esta movilidad con las redes sociales, tenemos una Internet completamente distinta a la que estamos usando hoy en día, y que nos plantea otros retos.

Primer reto. Internet ha cambiado nuestra vida, nuestro trabajo, nuestra forma de funcionar, sin duda, pero lo ha hecho solo con el 40% de la población. Con el

móvil —y la televisión como pantalla auxiliar— el cambio va a ser con el 100% de la población, porque de aquí a diez años (por decir una cifra exagerada) todo el mundo irá conectado a un móvil de este tipo. Si con el 40% de la población se ha conseguido el cambio que conocemos, pensad lo que va a ser con el 100% de la población, sobre todo si sigue la tendencia de dar más protagonismo al individuo y a los creadores de contenido que a las marcas. Es decir, en lo que Tim Berners-Lee pensó en el inicio de la red: un individuo que no es un espectador pasivo sino un creador constate. Esto plantea unos retos gigantes, a los periodistas y a los documentalistas.

Si hoy ya la mayor parte de la información no la hacemos los periodistas ¿cómo abordaremos un mundo de sobreinformación generada de forma espontánea por la gente? Mi receta es ser humildes. Tenemos que reconocer que la información ya no está en nuestras manos, que ser los mandarines de la información se acabó, pero que seguimos siendo muy buenos gestionando información, y que nos preparamos para ser muy buenos para ello. Y por tanto, desde la humildad de reconocer que todo el mundo tiene derecho a poner información, a dar opinión, etc. desde esa humildad y respeto, levantamos la bandera y decimos que unos cuantos «jugamos mejor», porque sabemos más, porque tenemos unas formas de crear.

Yo soy de los que creen que un bloguero no es un periodista, que una persona porque escriba en Twitter no es periodista... y que no pasa nada, porque los periodistas tenemos que reivindicar nuestras formas de funcionar. Debemos mantenernos en este universo, declarando con mucha claridad «esto es periodismo y eso no lo es». Sin vergüenza, sin tener miedo a decir que un bloguero no es periodista. Puede quizás hablar mejor que nosotros, escribir mejor que nosotros, saber más que nosotros... pero, simplemente no es un periodista. Esto tiene implicaciones para las empresas. Las grandes empresas periodísticas no tienen futuro. El futuro inmediato son empresas más pequeñas y más sostenibles.

Os voy a poner un ejemplo de un caso extremo que me sirve para explicar lo que quiero decir. Hace unos años, conocí a una persona que era corresponsal de perfumes de *The New York Times*, que vivía y cobraba por escribir sobre perfumes; viajaba a París para conocer nuevos perfumes, y de vez en cuando sacaba un tema en *The New York Times*. Es evidente que este señor no tiene futuro como periodista, porque es un campo donde habrá cinco o seis blogeros y blogueras que sabrán mucho más que él, y porque *The New York Times* no tendrá dinero para pagarse un lujo como es un corresponsal de perfumes. Pero, Economía, Política, Cultura, Deporte... todo eso va a seguir necesitando de periodistas; y tenemos que seguir aportando a la sociedad nuestra capacidad como periodistas.

3. CONTINENTES ABIERTOS, EL MEDIO ES UN OBJETO «DESEMPAQUETADO»

Segundo reto, y este me parece más complicado, ¿cómo afrontamos la situación de un mundo que se comunica sin medios? Estamos acostumbrados a co-

nectarnos con los medios para ver lo que sucede en cualquier lugar, en Japón por ejemplo, consultamos periódicos, radios y televisiones nacionales o locales... Pero, ¿qué pasa cuando esos continentes cerrados se abren?

Cualquiera que tenga una web sabe que el concepto de Portada es inútil. Desde que apareció Google, la gente puede entrar por cualquier lado, y te puedes encontrar que si alguien ha comentado algo en una red social, la gente entra directamente a la página quince y no a la una (por poner un símil). Seguimos teniendo una mentalidad de objeto cerrado, de que el medio es un objeto cerrado, y en ese universo de movilidad y de redes sociales el medio es un objeto «desempaquetado», donde nadie te compra el paquete entero, sino que cada uno coge lo que le interesa y lo mezcla. Entonces ¿cómo afrontamos eso desde los dos puntos de vista?

Como periodistas estamos acostumbrados a decir que un medio es una imagen del mundo. Intento transmitir qué es importante en el mundo, y en la medida que esta imagen es completa, coherente, me sirve para que los lectores se identifiquen con el medio y se sientan satisfechos. Si yo ya no puedo enviar eso, porque la mayoría de mis lectores no usa esa imagen global ¿qué hacemos aquí?

4. DOCUMENTAR LA RED

Y, desde el punto de vista de la Documentación ¿cómo ordenamos ese universo? El debate sobre cómo se ordena la información digital es un debate enormemente viejo, de hecho el origen de Internet tiene que ver con eso. El invento de Internet lo pagó el Departamento de Defensa porque los rusos lanzaron el Sputnik; los americanos no sabían qué hacía este satélite, e invirtieron mucho dinero para investigarlo. ¿Cómo hacer una red que sobreviva a un ataque atómico? La respuesta que encontraron fue construir una estructura que no tuviera centro, y donde todo fuera redundante. Era necesario para que la documentación sobreviviera, la documentación crítica. Este modelo funcionó porque había poca gente en la red, hasta que surgió la web. Con la explosión de información en la web, este modelo deja de funcionar, y aparece otro modelo, surge Google, que se dedica a rastrear la red y a hacer copias, identificar y documentar todo lo que hay, y ponerlo a disposición de la gente.

Hoy sabemos que el 40% de Internet no es visible, es la llamada Internet profunda. Tampoco Google llega a las redes sociales; está haciendo esfuerzos para incorporar Twitter y Facebook, pero todos sabéis que no se puede buscar Facebook con Google. Además, Google no te da la información buena, te da la información que le parece. No puedes preguntarle «¿cómo se llama el emperador de Japón?».

Tenemos Wolfram, que es un buscador inteligente, una buena alternativa a Google, y es una pena que llegue tarde. Si le pregunto quién soy yo, me responderá con mi dirección IP. Es muy divertido, si le preguntamos si existe Dios da una respuesta muy sugerente. Al preguntar sobre Bilbao, ofrece lo que no da Google: cuánta gente vive aquí, el área metropolitana, el mapa, la temperatura que está haciendo ahora mismo, las distancias, gente famosa... en fin, mucha información. El

modelo de los buscadores ha sido muy importante, y Wolfram hubiera sido una alternativa interesante, pero llega tarde.

Ahora el problema es cómo documentar el universo de redes sociales, y sinceramente no tengo respuesta. Me parece que es un reto fundamental, que tenemos que pensar mucho en ello, y que posiblemente solo tiene una clave que es, igual que en la Comunicación, confiar en los usuarios. Todo lo que está sucediendo en Internet tiene más que ver con los individuos que con las organizaciones. Y probablemente la única manera de poder documentarnos en un futuro sea autodocumentarnos (más que ir a buscar quién nos documente); por tanto, diversas técnicas de documentación deberían estar al alcance de todo el mundo. Hace años que defiendo que los periodistas de la era de Internet son documentalistas, porque tienen que buscar, tienen que encontrar y tienen que referenciar, que son las piezas básicas de la Documentación. Seguramente para sobrevivir en el universo al que vamos haya que enseñar a toda la población ciertas técnicas documentales.

Programas como Storify son buenos intentos de empezar a explicar esto. Si cada día puedo entrar a un programa donde tengo Twitter, Facebook, Google, las páginas web que me interesan... y puedo ir simplemente arrastrando lo que interesa, ordenando, moviendo, etc. como mínimo me permite organizar el caos personal, y a partir de ahí ya veremos si es posible organizar el caos colectivo. Hay gente que dice que ya existe un sustituto de Google, y muy bueno, que se llama Twitter. Si entro a Twitter y le digo como a Wolfram «¿dónde estoy?», igual alguno de vosotros lo ve y me contesta. Si pregunto «cómo va el partido de fútbol», hay quince personas que me responden, por tanto es más eficaz Twitter que el mismo Google.

Son preguntas que están sobre la mesa, y que tienen una respuesta complicada. Yo las planteo para que tengamos conciencia de ellas. Estamos en una fase completamente nueva, Internet está cambiando, y necesitamos nuevos instrumentos, nuevas habilidades, nuevas maneras de funcionar, y tenemos dudas muy serias sobre cómo podremos realizar nuestro trabajo en esta nueva era.

5. LA CULTURA LIBRE

Un último apunte: el elemento de la cultura libre. Esto es un proceso nacido de la Informática —la influencia cultural de la Informática en nuestra sociedad es mucho mayor de lo que parece—. Son los informáticos los que empiezan a plantear ideas de *copyleft*, de *creative commons*, de reciclar información, de coger trozos de información y engancharlos en otro lado y usarlos, de que el reconocimiento de la información no sea solo un reconocimiento económico o, incluso, no sea principalmente un reconocimiento económico, sino un reconocimiento de la autoría. Todo este movimiento de cultura libre es seguramente lo más fresco y lo más interesante que está pasando, por dos razones.

La primera es que lo contrario no funciona; la SGAE y compañía tienen un grave problema y es que lo suyo es inservible. En un universo en el que se puede

copiar con la facilidad que existe ahora, crear y modificar con la facilidad actual, unas leyes pensadas para pagar a los músicos del siglo XVIII no tienen ni pies ni cabeza, no sirven para nada. Al contrario, lo único que hacen es molestar y frenar. Cada vez es más difícil aguantar el modelo de *copyright* porque cada vez es más inservible. Las grandes multinacionales están hablando de poder sobre el mercado, no de *copyright*. Por ejemplo, si tenéis un grupo de música el *copyright* no os va servir para nada, mientras que con *copyleft* o *creative commons* os haréis famosos, a lo mejor no ganaréis mucho dinero pero os haréis famosos. Este problema es una simple cuestión de tiempo, estamos viviendo con la Ley Sinde los últimos coletazos de un modelo que no funciona.

Las claves del modelo alternativo son la trazabilidad de la autoría, por tanto, documentación. Tengo que saber de dónde proceden las cosas y quién ha añadido cada cosa; lo demás pierde importancia. Se plantea un reto económico y social sobre qué modelo de cultura y qué modelo de sociedad queremos. *VilaWeb*, el principal diario digital catalán, con medio millón de usuarios únicos..., es completamente *copyleft*, se puede copiar y llevar a donde sea, siempre señalando la autoría. Hace más de cinco años que estamos trabajando con ese modelo y mi percepción como director es que, no sólo no hemos perdido, sino que hemos ganado mucho.

En ese universo abierto que señalaba antes, donde el continente ya no existe (ese diario cerrado de la página uno a la sesenta), si queda algo —y eso está por explorar— ese algo es la marca. Y la marca sí puede ser interesante en términos de futuro.

El mundo se acaba, Internet tal y como la hemos conocido se acaba, emerge un mundo completamente nuevo, que tiene su base en la movilidad y en las redes sociales, que significa que la información está desempaquetada, que es más difícil de documentar, que es generada de forma autónoma por mucha más gente. Habrá que ver cómo periodistas y documentalistas nos enfrentamos a esta nueva etapa y cómo nos situamos en una perspectiva que nos permita seguir funcionando y seguir avanzando.

PREGUNTAS

1. Si en Internet todo es gratis, legible, alterable, copiable, etc. ¿de dónde proviene la financiación?

—En nuestro caso la parte básica es la publicidad. Esto no tiene nada de raro. A mí siempre me sorprende que la gente no pregunte cómo se financia la radio; nadie paga por escuchar la radio, nadie paga por consultar Internet. *VilaWeb* se financia básicamente con publicidad, el 75% de los ingresos es publicidad. Es verdad que es un caso un poco excepcional, ya que somos el jugador de Barcelona y Cataluña más importante en Internet. Tenemos una parte de suscriptores, que pagan por tener blog y algunos servicios especiales. Hay una parte de proyectos a terceros; tenemos una redacción de veintiséis personas que recibe una gran can-

tidad de información y somos capaces de elaborar boletines. Hay una parte del equipo que se dedica a empaquetar para otros toda la información que recibimos.

Ahora estamos muy obsesionados con los móviles, hemos sacado la versión para iPhone y para Android, una versión gratis con las últimas diez noticias; vamos a sacar *VillaWeb pro*, una versión de pago con «todo», y vamos a empezar a hacer aplicaciones «mundiales». Pensamos que un problema que tenemos las culturas de nuestro tamaño es que es difícil hacer un negocio con la poca gente que somos, y nos tenemos que meter a hacer negocios globales. Pensamos que igual que los israelíes han hecho de la seguridad un negocio, nosotros podemos hacer un negocio de la nación. Por ejemplo, acabamos de hacer una aplicación para iPhone que simplemente tiene todas las banderas de las naciones sin estado. Es una cosa muy sencilla, y está en inglés. Queremos abrir una vía de negocio relacionada con estos temas, a nivel mundial, con el concepto de negocio del modelo iPhone «a 95 céntimos me lo compro, a siete euros no». Creo que nos tenemos que plantear cómo saltamos al mundo, porque lo demás es difícil sostener las empresas que tenemos en nuestros países.

—También en el *Grupo Goiena* la publicidad es la fuente de financiación en un gran porcentaje. En año pasado la autofinanciación fue del 67%, y el resto se recogió de subvenciones. Pero, como dice Partal, nosotros también miramos adelante. Hemos creado una empresa, con el nombre de Batura, que está haciendo una gran cantidad de aplicaciones para los móviles (por ejemplo, para conocer el emplazamiento de las *txoznas* en las fiestas de Bilbao). Y no solo para el País Vasco; el otro día, un compañero fue a Ecuador a vender unas aplicaciones. Tenemos que creer que somos capaces de vender en el mundo, y es posible. Y es posible desde el euskara, y también desde traducciones, como ahora se hace desde el inglés. Y los productos que nosotros hacemos son como los que otros hacen para nosotros. Y sabemos vender; bueno, sabemos poco vender, pero sabemos hacer, y deberíamos vender también eso. Esas son las vías para financiar empresas como las nuestras; y otra gran parte viene de la publicidad. También hacemos algunos servicios para fuera, por ejemplo, en lo que se refiere a realización de revistas, realizamos el boletín TU Lankide, que se reparte entre los cooperativistas, el boletín de los euskaltegis municipales, otro boletín en colaboración con los ayuntamientos. También hacemos trabajos de *community manager* para algunas empresas; y, por último, lo que ya he comentado, estamos haciendo aplicaciones. (Iban Arantzabal Arrieta)

2. ¿Cómo veis el futuro de la profesión periodística?

—Defiendo desde hace años que no tienen que existir las facultades de Periodismo, y ahora lo tengo de defender aquí, aunque sé que no es el mejor sitio para ello. Mi opinión es que el Periodismo es sobre todo una pasión. No es una cosa que se pueda aprender. Si alguien no ha aprendido a escribir, no creo que lo pueda hacer en cinco años. Creo que es mejor estudiar una carrera como Sociología, Economía, Políticas... y luego convertirse en periodista. Pero bueno, ya que estás aquí estudiando más vale que lo aprovechéis.

Creo en cambio que el futuro del Periodismo es brillante, lo que ocurre es que ya se ha de pensar en otros parámetros. A mí me encantaría tener vuestra edad, porque estoy convencido de que es el momento de las grandes revoluciones en el Periodismo. Cuando a principios de los 80 empecé a trabajar como periodista, *El País* abrió la delegación en Valencia. Y recuerdo esa noche como la primera vez en mi vida que vi el poder. Hicieron una fiesta en un monasterio, y todo el mundo tenía que pasar a dar la mano delante del delegado, de Juan Luis Cebrián y Jesús Polanco, y había una fila de miles de personas pasando uno a uno... *El País*, *Prisa*, ha sido para los que tenemos una cierta edad, «el no va más». Todos sabemos que ha puesto y quitado gobiernos, que se han hecho leyes a su favor, que ha cambiado leyes, etc. es el paradigma del poder periodístico. Ver ahora como se está deshaciendo como un terrón de azúcar es un espectáculo fascinante —dicho esto con el mayor respeto para los compañeros del *Grupo Prisa*, que evidentemente lo están pasando muy mal—. Ver que los monstruos de la comunicación se están muriendo delante de nosotros quiere decir que se abren las puertas a otros proyectos.

Creo que el futuro del Periodismo pasa por crear empresas sostenibles, que se dedican a una sola cosa. No tiene sentido hacer periódicos para todo el mundo, pero hacer periódicos para grupos pequeños y concretos tiene más sentido que nunca. Nosotros estamos definiendo *VilaWeb* como la interfaz del mundo catalán con lo global; no nos vamos a meter a las informaciones demasiado localistas y, como somos *hard news*, tampoco hacemos Deportes; eso ya lo harán otros. Esto quiere decir que es necesario limitar el campo de actuación.

Hay casos extraordinarios, como por ejemplo la web americana *politico.com* <<http://www.politico.com/>>. Montado por experiodistas de *The Washington Post*, solo habla de política de Washington y, además, saca una edición en papel cuando hay sesión del Parlamento.

El futuro son, por lo tanto, medios más pequeños, más sostenibles y muy concentrados en el foco sobre el cual informan. Nosotros tenemos muchas máquinas para crear *VilaWeb*, pero hoy en día es posible montar todo esto en un servidor de la India, a coste cero.

La segunda gran tendencia del Periodismo es la autoocupación, generar productos (no sé si se les puede llamar medios) muy concentrados en una temática concreta, realizados por una o dos personas. Necesitan poco dinero para funcionar, ya que si sirven para autoocuparse puede ser suficiente. Yo comencé en los años ochenta, cuando en el noventa y cinco me metí en *VilaWeb* tuve que asumir parte empresarial, y recuerdo lo que me sorprendió descubrir que facturación y beneficio no es lo mismo. Puede haber empresas que facturen millones y no ganen nada y otras que facturen muy poco y ganen mucho. Tenéis que elegir entre la una y la otra, pero sabiendo que las que facturan mucho y no ganan nada tienen poco futuro, están acabadas.

—Eso es lo que he tratado de explicar antes, «el periodista once» tiene futuro, pero tiene que ser «once», y tiene que controlar las herramientas. Por otro lado, se necesita espíritu de periodista —Partal lo llama «pasión»—. No sé si eso se aprende en la universidad, pero para ser periodista se necesita espíritu de perio-

dista. Sin espíritu de periodista no hay periodista. Y luego está el tamaño; en nuestro caso no era posible mantener un proyecto de este tipo en cada pueblo, era demasiado pequeño; pero tampoco conviene algo demasiado grande, porque hay que mantener la estructura, ha de ser de buena medida. Y, después de encontrar la medida, hay que encontrar también el espacio. Nuestro espacio es local, de una comarca, ahí nos hemos especializado; eso no hay nadie que lo haga mejor que nosotros. En el espacio en que nos movemos, si alguien cae al agua —como sucedió el otro día— enseguida estamos ahí informando: primero por Twitter; luego irá la televisión; después se harán preguntas en la calle. Eso estamos haciendo nosotros. Siendo «el periodista once», con especialización y espíritu, pienso que hay futuro. (Iban Arantzabal Arrieta)

IV

Unibertsitateetako bibliotekak: informazio zientifiko eta akademikorako sarbide irekiaren aldeko konpromisoa

Paula Quintano

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko liburuzaina
Bibliotecaria de la Escuela Politécnica Superior de la Universidad de Mondragon

Laburpena: Biblioteka unibertsitarioaren kontzeptuak eredu tradizional eta estatiko batetik gaur egungo Ikasteko eta Ikertzeo Baliabideen Zentroetara (IIBZ) eboluzionatu du, jakintza lortzeko eta zabaltzeko beharrezkoak diren zerbitzu eta baliabide guztiak integratzen dituzten zentro dinamikoak bihurtu dira. Kontzeptu berria barneratzeak funtsezko bultzada ekarri du unibertsitateak *Open Access* mugimenduarekin duen erlazioarentzat.


Kontuan izanda OA ekimenak informazio zientifiko eta akademikorako sarbide digital irekia aldarrikatzen duela, sarbide irekiko plataformak sortzeko eta zabaltzeko biblioteca unibertsitarioen zeregin aktiboa aipatuko dugu. OA informazio-produktu nagusiak aztertuko ditugu, erakunde-biltegiak eta «zientzia irekiaren biltzaileak», sarbide irekiko aldizkarien plataformak (OAJ) eta ikaskuntzarako materialen biltegiak (OCW). Eta noski, baita ere aipatuko dugu sarbide irekiko informazio arloan egile-eskubideen eta jabetza intelectualaren kudeaketa, *Copyleft* eta *Creative Commons* lizenziaren bidez.

Resumen: Bibliotecas universitarias: compromiso con el acceso abierto a la información científica y académica. El concepto de biblioteca universitaria ha evolucionado desde un modelo tradicional y estático hasta los actuales Centros de Recursos para el Aprendizaje y la Investigación (CRAI), centros dinámicos donde se integran todos los servicios y recursos necesarios para el acceso y la difusión del conocimiento. La adopción de este nuevo concepto supone un empuje esencial para la relación de la universidad con el movimiento *Open Access*. Teniendo en cuenta que la iniciativa OA reivindica el acceso digital libre a la información científica y académica, comentaremos el papel activo de las bibliotecas universitarias en la generación y difusión de plataformas de acceso abierto. Analizaremos los principales productos de información OA: los repositorios institucionales y recolectores de ciencia abierta, las plataformas de revistas de acceso libre (OAJ) y los repositorios de objetos de aprendizaje (OCW). Y, por supuesto, hablaremos de la gestión de los derechos de autor y la propiedad intelectual en la información de acceso abierto, a través de iniciativas como *Copyleft* y licencias *Creative Commons*.

1. SARRERA. BIBLIOTEKA UNIBERTSITARIOEN BILAKAERA: IKASKUNTZARAKO, IRAKASKUNTZARAKO ETA IKERKUNTZARAKO BALIABIDEEN ZENTROAK, IIBZ

Bibliotekaren kontzeptuak aldaketa sakonak izan ditu azken urteetan, eta biblioteka unibertsitarioak ere aldaketa prozesu horretan murgildu dira. Informazio eta komunikazio teknologien demokratizazioa eta web 2.0 ideiaren garapena izan dira oinarrizko arrazoak bibliotekaren norabide berrian; baina, unibertsitatean hezkuntza-eredu berriak, Europako goi hezkuntzarako espazioan, beste ikuspuntu bat eskaini die bibliotekei.

Bognarra egokituta dagoen sistemak ikasle eta irakasleen eginkizun autono-magoak eta aktiboagoak eskatzen ditu, eta bibliotekak ezin dira iraganeko ereduetaen gelditu. Informazio eta komunikazio sistemen aldaketek eta jakintza gi-zartearren prestakuntzarako eskari berrieik behar berriak sortu dituzte. Horretan, bibliotekak zentro estrategikoak izan dira, komunitate unibertsitario osoa elkarrekin erlazionatzen den toki nagusia izateagatik.



1. irudia

Biblioteka unibertsitarioen aldaketa

Edu tradizionalean, bibliotekak estatikoa ziren, inprimatutako baliabideak kudeatzeko zentroak bezala funtzionatzen zuten eta irudi horretan batez ere liburu-en biltegia eta ikasteko espazioak ziren. Liburuak eta informazio baliabideen kudeaketa eta kontserbazioa ziren helburu nagusiak.

Kontzeptu berrian, dinamismoa eta malgutasuna dira lehentasunak. Oraingo bibliotekak dinamikoak dira, leku malguak, esparru fisikoan nahiz birtualean. Edu berriaren lehentasuna erabiltzailea bera da, ez liburia. Erabiltzaile guztien

beharak asetzea da helburua, ikasle, irakasle eta ikertzaileentzako zerbitzu akademikoen gunea izatea. Erabilera anitzeko baliabideen zentroak dira: erabiltzaileek dituzten zalantza teknikoak edo metodologikoak konpontzeko esparruak, informazio baliabideak topatzeko guneak, ikasteko, irakasteko eta ikertzeko materialak eskuaratu eta prestatu ahal izateko tokiak, lan-espazioen eta baliabide teknikoen hornitzaileak.

Ikasteko eta Ikertzeko Baliabideen Zentroek (IIBZ) bezala, unibertsitateko irakaskuntza, hezkuntza eta ikerketa programak sustatzen dituzte; aurrerapauso handia, biblioteka tradizionalekin konparatzen baditugu. Tradizionaletan, programa haien mailako zerbitzutzat hartzen ziren eta ez ziren batere koordinatzen arlo akademikoarekin.

Horrez gain, biblioteka berriei kultura zabalkuntzaren alde egiten dute lan, unibertsitateko nobedadeak, aurkikuntzak eta aurrerapausoak gizartera zabalduz.

Erabiltzaileen alfabetizazioa ere apustu handia izan da, informazioaren erabilera azkarra, praktikoa eta etikoa bermatzeko. Horrela, komunitate unibertsitario osorako prestakuntza planak eskaintzen dituzte, informazio munduan autonomoak izateko.

Ikusiko dugunet, kontzeptu berria eta eginkizun berria bereganatzeak Sarbide Irekiaren mugimendua zabaltzeko aukera eskaini du unibertsitate munduan nahiz gizartean.

Estatuan, mugimenduaren aldeko adierazpen ofizialak orain dela zazpi urte hasi ziren, eta lehenengo ekimenetik asko garatu da biblioteken parte-hartzea sarbide irekiaren munduan.

Espaniako Biblioteka Unibertsitarioen sareak, REBIUN, 2004. urtean informazio zientifiko eta dokumentaziorako sarbide irekiaren aldeko adierazpen instituzionala onartu zuen. Beste gauza batzuen artean, ikertzaileei, erakundeei eta agintariei dei egiten zien, sarbide irekiaren garapenerako konpromisoa hartzeko bide desberdinaren bidez: argitalpen irekietan publikazioak bultzatzuz, sarbide irekiko biltegiak sortuz eta mantenduz, biltegien sorkuntza finantzatzuz, elkarlanean arituz eta eduki irekiak garatzeko proiektuetan parte hartuz.

2. SARBIDE IREKIAREN MUGIMENDUA

Komunikazio bide berriaren jatorrian hainbat faktoreren nahasketa dago: teknologikoak, ekonomikoak, sozialak, dokumentalak... Baina, guztien artean informazioaren munduan eta zientziaren komunikazioan eta hedakuntzan Internetek, sareak eta web sozialak izan duten inpaktua izan daiteke aipagarriena.

Jakintzaren munduan, Internetek informazio erabilgarriaren hazkunde erraldoia ekarri zuen; baina, aldi berean, arazo berriak ere eragin zituen. Informazio iturriak sakabanatuta zeuden, kalitate oneko informazioa ez zen erraz aurkitzen, bilatzaileek zati txiki bat bakarrik indexatzen zuten, gehiena elkartea pribatuek kontrolatzen zuten. Beraz, dirutza ordaindu behar zen, informazioa lortzeko.

Komunikazio zientifiko tradizionala bi ideiatan oinarritzen zen: aldizkari zientifiko ospetsuetan artikuluak argitaratzean eta argitalpenen inpakta ebaluatzean eragindako indizeen bidez. Baino, eredu tradizionalak ere bazituen alderdi negatiboak.

Orokorrean, informazio zientifikoa eskuratzeak zaitasun ekonomikoak ekartzen zituen, argitalpen mundua enpresa gutxi batzuk kontrolatutako monopolio komertziala zelako. Gainera, ereduak ikerlariak presiopean jartzen zituen, bisibilitatea eta errespetu profesionala lortzeko soilik, eragina zuten aldizkarietan argitaratzera behartzen zituelako.

Hori zen egoera informazio munduan Sarbide Irekia sortu zenean. *Open Access* mugimenduak erronka berriak bereganatu zituen eta, arazo horien aurrean, konponbide zehatzak eskaintzen saiatu zen.

Sarbide irekiaren kontzeptua Budapest (2002), Bethesday eta Berlingen (2003) egindako adierazpenetan ezarri zen, hiru ideia nagusitan oinarritura: sarbide ireki digitala informazio zientifiko-akademikorako.

Irekia da, hau da, murrizketarik gabe erabil daitekeena, ez murrizketa ekonomikorik, ez copyright edo egile eskubiderik, ezer ez; digitala, Interneten bidez lortzen delako eta, baliabide guztietatik, bereziki zientifiko-akademikoak eskaini nahi dituelako. Horrela, erabiltzaileak aukera du informazioa irakurtzeko, deskargatzeko, kopiatzeko, banatzeko eta erabiltzeko¹.


3. SARBIDE IREKIKO PRODUKTUAK ETA INFORMAZIO ITURRI IREKIAK

Ekoizpen akademikoa argitaratzeko eta ezagutarazteko OA mugimenduak bi bide ditu:

- Urrezko bidea (*gold road*): sarbide irekiko aldizkarien edizioa, Interneten bidez.
- Bide berdea (*green road*): dokumentu akademikoen artxiboa eta sarbide irekiko biltegiengarapena.

Biblioteka unibertsitarioek bi bidetan hartzen dute parte. Alde batetik, ikerlarien artean sarbide irekiko aldizkarietan argitalpenak bultzatzen saiatzen dira, eta erakundeetan aldizkari irekiak sortzen ere bai. Bestetik, kasu gehienetan bibliotekak dira erakunde biltegiak sortzeko eta kudeatzeko aginte nagusiak.

¹ Open Access Initiative, *Budapest-eko definizioa (BOAI)*. By ‘open access’ to literature we mean its free availability on the public internet, permitting any users to read, download, copy, distribute, print, search, or link to the full texts of these articles, crawl them for indexing, pass them as data to software, or use them for any other lawful purpose, without financial, legal, or technical barriers other than those inseparable from gaining access to the internet itself. The only constraint on reproduction and distribution, and the only role for copyright in this domain, should be to give authors control over the integrity of their work and the right to be properly acknowledged and cited. (<http://www.earlham.edu/~peters/fos/boaifaq.htm>)



2. irudia

Sarbide irekiaren bide bikoitza

3.1. Sarbide irekiko aldizkariak

Urrezko bidearen muina sarbide irekietan argitaratzea da. Gaur egun, aldizkari askok murizzketarik gabe eskaintzen dituzte haien edukiak eta nazioarteko direktorioak ditugu mugimenduaren egoera ezagutzeko, eta baita aldizkari irekiak lortzeko ere.

Direktorio horien artean ezagunena *DOAJ* da, *Directory of Open Access Journals*. Gaur egun 6.312 nazioarteko aldizkari erregistratuta eskaintzen ditu eta horietatik 2.746 aldizkaritan argitaratutako artikuluak lor ditzakegu (guztira, 538.863 artikulu erabilgarri). Artikuluen %43 baino gehiagotan edukien barruan bilaketak eta kontsultak egiteko aukera dago. Bilaztaileaz gain, aldizkarien zerrenda ere eskaintzen du.

OpenJGate plataforma ere interesgarria da, aldizkari zientifiko eta akademiko irekiak ezagutzeko. Plataformak 8.398 aldizkari irekietarako sarrera eskaintzen du. Aldizkariak sailkatuta daude: berrikusitakoak (*peer-review*) eta berrikusigabeak. Guztietatik %66 berrikusitakoak dira; gainerakoak profesionalak edo industriako aldizkariak. Milioi bat artikulu ireki baino gehiagorako sarbidea ematen du. Erregistroak kontsultatzeko bilaztailea dago, eta baita aldizkarien zerrenda ere.



3. irudia

DOAJ (<http://www.doaj.org/>)
eta *OpenJ-Gate* (<http://www.openj-gate.com/Search/QuickSearch.aspx>)

Estatuaren egoerari begira, DOAJ direktorioan 355 sarbide irekiko aldizkari español agertzen dira erregistratuta. Ulrich direktorioan gutxiago agertzen dira, 271 aldizkari ireki; baina, kopuru konparatiboa eskaintzen digu: aldizkari guztietatik %13,3 dira aldizkari irekiak eta gehienak, %46,12, unibertsitateek, elkarteko zientifikoak eta ikerketa zentroek argitaratzen dute². Ikusten dugunez, Spainian egiten diren aldizkarien artean gutxi dira sarbide irekikoak; baina, behintzat, Dulcinea datu-baseari jarraituz, aldizkari gehienek, %76,15, haien artikuluak biltegietan gordetzea onartzen dute³.

Estatuan, aldizkari irekiko plataforma 90. hamarkadan hasi zen sortzen: 1993. urtean *Repositorio Español de Ciencia y Tecnología* gunea jaio zen, zientziari buruzko aldizkarentzako plataforma bezala, eta *Scielo España*, aldizkarien biblioteka birtuala, 1997. urtean.

Gaur egun, aldizkari irekiak eskaintzen dituen plataforma garrantzitsuak aipatzearren:



4. irudia

E-Revistas CSIC (<http://www.erevistas.csic.es/>)

Ikerketarako Erakunde Publikoaren plataforma;

Dialnet (<http://dialnet.unirioja.es/>) Unibertsitateko plataforma, Errioxako Unibertsitatekoa

REDALYC (<http://redalyc.uaemex.mx/>) Mexikoko Unibertsitate Publikoaren plataforma

- *E-Revistas*, CSIC-ek egindako plataforma, aldizkari zientifiko latinoamerikarrak eta españolak biltzeko. Gaur egun, 509 aldizkari irekiak eskaintzen ditu. Edozein arlotako edo hizkuntzatako aldizkariak izan daitezke, baina guztiak kalitate eta edukien inguruko eskakizunak bete behar dituzte (aldizkari elektronikoen betebeharrak, Latindex-ek ateratakoak) eta testu osora libreki sartzeko aukera eman behar dute. Nazioarte mailan, *Open Access* baliabideen zerrenda interesgarria ere ematen du.
- Spainian *DIALNET* atari bibliografikoaren kasua ere oso interesgarria da. Hemeroteka birtual moduan hasi zen, aldizkarien aurkibideak biltzen; baina, pixkanaka-pixkanaka, beste informazio baliabideak ere integratu zituen eta, 2004. urtetik aurrera, biltegi bihurtu zen, Estatuko sarbide irekiaren mugimendua sustatuz. Estatuko ekoizpen zientifikoaren ikusgarritasuna handitzea da helburu nagusia, batez ere informazio-alerten bidez; baina, gaur egun, zerbitzu horrez gain, beste batzuk ere eskaintzen ditu: hemero-

² Abadal, Ernest et al.: «Open acces in Spain», in *Open Access in Southern European countries*. Lluís Anglada, Ernest Abadal (eds.). Madrid: FECYT, 2010.

³ Iturria: Dulcinea (<http://www.accesoabierto.net/dulcinea/>).

teka birtuala, ekoizpen zientifikoaren datu-basea eta sarbide irekiko biltegia.


— *REDALYC*, espinola ez bada ere, estatuko aldizkari zientifiko irekiak ere eskaintzen ditu. UAEM-ek bultzatutako ekimena (Mexiko Estatuko Unibertsitate Autonomoa) Iberoamerikan eta Iberoamerikari buruzko sarbide irekiko aldizkarien hedapena ziurtatzeko plataforma bezala funtzionatzen du, 758 aldizkarirekin eta 173.243 testu osoko artikulutan bilatzeko aukera ematen du, baita baliabideak topatzea jakintza arloaren arabera eta estatuka.

3.2. Sarbide irekiko biltegiak

Biltegiak (*repository*, ingelesez) Interneten bidez sarbidea duten artxibo digitalak dira. Horietan, material akademikoak batzen eta hedatzen dira, arlo jakin bateko materialak, erakunde jakin batekoak edo hainbat erakundetakoak. Interoperatiboak dira, hau da, protokolo komun bat erabiltzen dute (*OAI-PMH Open access initiative protocol for metadata harvesting*). Horrela, katalogo edo datu-baseetan ez-kutatuta zeuden dokumentuak zabaltzen dira eta biltegi guztien baliabideen ikuspeña ziurtatzen da, haien berreskurapena errazten da eta kontserbazioa bermatzen da, Interneteko hegazkortasunaren aurrean.

Biltegiak ez dira publikazio bide berriak, hedabideak dira. Beren eginkizun nagusia ez da dokumentuak argitaratzea, baizik eta biltzen dituzten objektu digitalak jendartean hedatzea, etengabe bilduz eta zabalduz. Horregatik, sarbide irekia bateragarria da argitaratzeko bide tradizionalekin, bi bideak aldi berean erabil daitezke: betiko moduan argitaratu eta, horrez gain, dokumentua biltegi batean sartu, komunitate akademikorako eskuragarria eta librea izateko.

Era guztietaiko dokumentuak biltzen dira, hala nola, artikulu zientifikoak, tesiak, kongresuetan aurkeztutako txostenak, karrera amaierako proiektuak, erakun-



5. irudia

Informazioaren prozesua, biltegietan

dearen barne-txostenak, erakundearen aldizkari propioak, hezkuntzarako sortutako materialak, *datasets* (landugabeko datuak) eta multimedia objektuak. Normalean, biltegietan diren dokumentuei *e-print* esaten zaie (*electronic prints*).

Objektu digital hauek *preprintak* edo *postprintak* izan daitezke, argitaratu baino lehen ebaluaketa prozesu bat gainditu badute edo edukien berrikuspena ez bada egin. Aldizkari zientifikoetan argitaratzen direnean, artikuluak adituen talde batek goitik behera gainbegiratzen ditu («*peer review*» aldizkariak) eta, argitaratzeko prozesua luzatzen denez, artikuluen bertsioak edo zirriborro desberdinak sor daitezke argitaratu baino lehen. Biltegietan, bertsio horiek guztiak bil daitezke, *preprintak* edo artikulu baten lehenengo bertsioa, gainbegiratu gabe, eta *postprintak* argitaratuko den artikulua gainbegiratuta.

Eduki aldetik, hau da, biltzen duten baliabideen arabera, biltegien sailkapena egin daiteke.

- *Biltegi instituzionalak*. Biltegian, instituzio akademiko baten ekoizpen akademikoa eta zientifikoa jasotzen dira, hainbat arlotakoak guztiak ere, eta bere komunitateari baliabideen bilketa, kudeaketa, kontserbazioa eta banaketa zerbitzuak eskaintzen dizkio.
- *Biltegi tematikoak*. Hainbat erakunderenak izan daitezke, baina beti arlo tematiko jakin bateko ekoizpena gordeko da. Gordetzen den guzia komunitate zientifiko osoaren eskura dago. Biltegi mota hauek bilketa, kudeaketa, kontserbazioa eta banaketa zerbitzuak eskaintzen dituzte.
- *Eduki espezifikoen biltegiak*. Biltegi hauetan, dokumentu mota bereziak biltzen dira: tesietakoak, aldizkarietakoak, ikaskuntzarakoak, testualak ez diren materialak biltzen dituztenak (material multimedia, ikus-entzunezko materialak). Hauetan, kudeatzaleak erakunde bat edo erakundeen federazioak izan daitezke, eta arlo tematiko jakin batean edo hainbatetan espezializatuta egon daitezke.



6. irudia

DSpaceMIT, erakunde biltegia (<http://dspace.mit.edu/>);
Archive Ouverte en Sciences de l'Information et de la Communication,
 biltegi tematikoa (<http://archivesic.ccsd.cnrs.fr/>);
DartEurope-E-tesien ataria, eduki espezifikoen biltegia
 (<http://www.dart-europe.eu/About/info.php>)

Hauen barruan, *OCW biltegiak edo irakaskuntzarako biltegi digitalak* aipagariak dira, nazioarte mailan eta Spainian asko zabaldu direlako.

2001. urtean, MIT-ek unibertsitatean egiten eta erabiltzen ziren ikaskuntzarako materialak batu zituen eta sarbide irekia emateko plataforma berezi bat sortu zuen, *OpenCourseWare*. Ekimena mundu osora hedatu da eta, unibertsitate askotan, honelako biltegiak sortu dira. Horien bidez, komunitate unibertsitarioak (ikasle-irakasleak) eta, oro har, gizarteak material pedagogikoak libreki lortzeko aukera dute. Irakaskuntzarako materialak biltzeko, bi modu daude: batzuetan, unibertsitateek OCW gordailu bereziak sortzen dituzte honelako materialekin eta, aldi berean, biltegi instituzionalak ekoizpen zientifikoarekin; beste batzuetan, material guztiak biltegi berean gordetzen dira (hezkuntza-materialak, eduki akademikoak, ikerkuntzako emaitzak...) eta puntu bakar batetik hedatzen da informazioa.

Irakaskuntza biltegien kasuan, nazioarteko partzuergo bat dago, *OCW Consortium*. Bere plataforman, mundu osoko hezkuntza-edukiak eskuragarri ipintzen ditu, berrerabilzeko prest gainera.

The screenshot shows the homepage of the OpenCourseWare Consortium. At the top, there's a navigation bar with links for 'ABOUT US', 'COURSES', 'COMMUNITY', and 'MEMBERS'. Below the navigation, there's a large image of hands typing on a keyboard. To the left, there's a sidebar with sections for 'Primeros pasos' (with links to FAQ, Join, Log in, etc.), 'Boletín' (with a 'CLICK HERE TO SUBSCRIBE' button), 'Calendario de Eventos' (a calendar showing events from 2012 to 2013), and 'Búsqueda de Cursos'. The main content area has several news items and a section for 'Patrocinadores' (with logos for Hewlett Foundation and others). A sidebar on the right is titled 'OCW de la Encuesta de Opinión'.

7. irudia

OpenCourseWareConsortium (<http://www.ocwconsortium.org/>)

Espanian hezkuntzarako biltegien biltzaile moduan funtzionatzen duten bi plataforma aipatuko ditugu. Alde batetik, *OCW UNIVERSIA*, Estatuko unibertsiti-

The screenshot shows two side-by-side web pages. On the left is the 'OCW universia' website, featuring a search bar, a sidebar with course categories like 'Matemáticas', and two featured courses: 'NATURALEZA ASOCIADA SABERIA' and 'COSMOLOGÍAS ASOCIADAS AL MUNDO'. On the right is the 'agrega' website, which is a visualizador de contenidos. It shows a grid of course thumbnails, a sidebar with categories like 'Básicas', and a footer with links to 'Universidad', 'Escuela', 'Centro', and 'Instituto'.


8. irudia

Universia (<http://ocw.universia.net/es/>)
eta *Agrega* (<http://agrega.educacion.es/visualizadorcontenidos/Portada/Portada.do>)

tateen hezkuntza-materialekin; horiek klaseetan erabiltzen dira, goi hezkuntzako balibideak biltzen dira, erabiltzeko, banatzeko eta egokitzeko libreak, normalean. Eta, bestetik, AGREGA, Espainiako hezkuntza-komunitatearen biltegia.

Biltegi guztiak erregistratzeko, *direktorioak* existitzen dira, nola nazioartean, hala estatuan. Direktorio garrantzitsuenen artean, *Open Archives Initiative* zerrenda ofizialaz gain, *ROAR*, artxibo irekien erregistroa eta *OpenDOAR* direktorioa ditugu. Horiei esker, sarbide irekiaren argazki zehatza izan dezakegu.


Datuengoa arabera, bi etapa handi bereiz ditzakegu biltegien kronologian: lehenengoa 2001-2005 urteetakooa, nazioarteko lehenengo adierazpenekin lotuta, eta bigarrengoa, 2005etik gaur artekooa, biltegien etengabeko garapena eta hazkunde exponentziala.



9. irudia

OA biltegien hazkundea munduan. OpenDOAR, bisita 2011-03-09;
OA biltegien hazkundea eta informazioaren hazkundea munduan.

Iturria ROAR, bisita 2011-03-09



10. irudia

OA biltegiak estatuen arabera. Iturria ROAR, bisita 2011-03-09;
Biltegien ereduak mundu mailan. Iturria ROAR, bisita 2011-03-09

Gaur egun, biltegien kopuruari dagokionez Espania seigarren estatua da (%3,62), nagusiak Ameriketako Estatu Batuak (%17,27) eta Erresuma Batua (%8,94) direlarik. Munduko biltegien sailkapenari erreparatuz gero, erdia baino gehiago biltegi instituzionalak dira (%61,60), eta oso distantzia handira ditugu era-kundeen arteko biltegiak (%8,47) eta eduki espezifikoen biltegiak (tesiak, e-aldizkariak, ikaskuntzarako objektuak...).

Informazio akademiko irekia berreskuratzeko, biltegiez gain, «*zerbitzuen hornitzale*» batzuk agertu dira. Horiek objektu digital irekiak eta biltegien informazioa eskaintzen dute, beste baliabide batzuez gain. Batzuetan, «*harvester*» edo biltaileak esaten zaie. Honek plataforma asko daude; batzuk nazioartekoak dira, beste batzuk Europa mailakoak, beste batzuk tematikoak, beste batzuk nazionalak...

Nazioarteko aranean, *OAIster*, *Scirus* eta *Google Akademikoa* aipa ditzakegu.

- *OAIster*, Michigan Unibertsitateko proiektua, milioika erregistro dituen katalogo kolektiboa da, eta mundu osoko sarbide irekiko artxiboen baliabide digitalak jasotzen ditu (biblioteka digitalenak, biltegienak, aldizkari digitalenak...).
- *Scirus* zientzian espezializatuta dagoen bilatzailea da, informazio zientifika soilik bilatzeko bilatzailea. Beste baliabide batzuen aranean, biltegien ekoizpena, aldizkariak eta material irekiak eskaintzen ditu nazioarte mailan.
- *Google Akademikoa* informazio akademikoaren bilaketan dago espezializatuta. Tematika anitzetako baliabideak eskaintzen ditu; besteak beste, biltegien materialak. Horrez gain, lan akademikoen proiekzioari buruzko informazioa eskaintzen du; adibidez, dokumentuen aipamen kopurua beste ikerketa-lanetan, eta aipatzen dituzten lanak ikusteko aukera ere ematen du.



11. irudia

OAIster (<http://www.oclc.org/oaister/>); *Scirus* (<http://scirus.com/>);
Google Scholar (<http://scholar.google.es/>)

4. BILTEGIAK ETA «ZIENTZIA IREKIAREN BILTZAILEAK» ESPAINIAN

Estatuan biltegi irekien sorrera 2001. urtean hasi zen. Kataluniako CBUC-ek sortu zuen *TDX* biltegia, tesiak batzeko eta zabaltzeko. Lehenengo bost urteetan, hazkundea motela izan zen. 2003. urtean, *E-Lis* Bibliotekonomia eta Informazio Zientzietan espezializatuta dagoen biltegi tematikoa sortu zen. 2004. urtean, *E-Prints Complutense* agertu zen, unibertsitateko biltegi instituzionala, *Recercat Cataluña*, biltegi kooperatiboa Kataluniako ikerkuntza zentroen eta unibertsitateen dokumentu digitalekin eta *Dialnet* aurkibide elektronikoen plataforma


biltegi ireki bihurtu zen. 2005. urtean, *UPCommons*, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoarena... Ikusten denez, hasiera-hasieratik unibertsitateak aitzindariak izan ziren.



12. irudia

Tesis Doctorals en Xarxa (<http://www.tesisenxarxa.net/>);
E-LIS, Library and Information Sciences (<http://eprints.rclis.org/>);
Recercat (<http://www.recercat.net/>)

Benetako hazkundea azken lau urteetan gertatu da. 2008. urtetik aurrera biltegi kopurua asko handitu da, baita gordetzen dituzten objektu digitalen kopurua ere. Biltegi gehienak nahiko gazteak dira eta esan dezakegu gaur egun ia hilero biltegi berriren bat argitaratzen dela. Argitaratu diren azkenak 2011ko martxokoak dira eta 2010-11 ikasturtea hasi zenetik 9 biltegi berri sortu dira.



13. irudia

Biltegi kopuaren hazkundea Spainian. Iturria OpenDoar , bisita 2011-03-09


Orain arte, 70-80 biltegi daudela esan daiteke, ze iturri hartzen den kontuan: *Open Doar* direktorioan 70 biltegi español agertzen dira, *Roar* erregistroan 80 biltegi eta estatu mailan *Buscarepositorios* plataformak 73 biltzen ditu⁴. Argitaratuta

⁴ OpenDoar, Roar eta BuscaRepositorios webguneetatik ateratako datuak. Konsulta: 2011-03-28.

daudenez eta direktorioetan agertzen direnez gain, gaur egun hainbat biltegi daude sorkuntza edo argitalpen fasean. Zehaztu gabeko kopurua da, baina haien artean euskal unibertsitateen bi biltegi daude, Mondragon Unibertsitateko bata, dagoneko garatuta dagoena, baina oraindik jendaurrean argitaratu gabe dagoena, eta UPV/EHUko biltegi instituzionala bestea.

Nazioarteko joerari jarraituz, Espainiako biltegi gehienak instituzionalak dira eta horietatik %68-ren sortzaile nagusiak unibertsitateak edo ikerkuntza zentroak izan dira. Dena den, bai Estatuan eta bai Euskadin erakunde kulturalen ekimenak azpimarratu behar dira. Espainiako Kultura Ministerioak *Hispana* eta *Prentsa Historikoaren Liburutegi Digitala* biltegiak sortu ditu, gaur egun estatu mailan erre-gistro gehien dituztenak. Euskadin, berriz, gaur egun publikatuta dauden 4 biltegien artean, 3 erakunde kulturalek egindakoak dira.

Edukiei dagokienez, estatuko biltegiek batez ere aldizkari artikuluak (%58) eta tesiak (%54) eskaientzen dituzte, eta baita beste dokumentu asko ere, hala nola, liburuak, liburuuen kapituluak eta hitzaldien txostenak. Azken urteetan, asko nabaritu da ikaskuntzarako materialen kopuruaren hazkundea. Arlo tematikoek aldetik begiratuta, gehienak diziplina anitzekoak dira (%81) eta gainerakoak arlo jakin batzuetaen espezializatuak. Momentuz, zientzia, medikuntza eta teknologia dira gehien jorratu diren gaiak; historia eta giza zientziak askoz gutxiago agertzen dira.



14. irudia

Espainiako biltegien edukiak. Iturria OpenDoar, bisita 2011-03-09;

Espainiako biltegien gaiak. Iturria OpenDoar , bisita 2011-03-09

Estatuko biltegien artean adibide interesgarri batzuk aipatzearren:

- *Digital CSIC*: CSIC-eko biltegia, diziplina anitzeko erakunde biltegia, 30.000 erregistro baino gehiago, gaur egun 30.759 dokumenturekin.
- *E-Ciencia*: Madrilgo unibertsitate publikoek ekoiztutako informazio zientifikora sartzeko plataforma digitala.
- *REDINED*: Hezkuntza Informazioarako Datu Baseen Sarea: ikerketak eta berrikuntza, baliabide didaktikoak eta aldizkariak eskaintzen ditu.



15. irudia

Digital CSIC (<http://digital.csic.es/>);
E-Ciencia (<http://www.madrimasd.org/informacionidi/e-ciencia/default.asp>);
Redined (<http://www.redined.mec.es/>)

Euskal Herrian, orain arte publikoak diren biltegi gehienak erakunde kultura-lek sortu dituzte Euskal Herriari buruzko informazioa hedatzeko asmoz, batez ere ikuspegi historiko batekin.

Euskomediak, Eusko Ikaskuntzaren Fundazioak alegia, bi biltegi tematiko garatu ditu, *HedatuZ* euskal zientzia eta kulturari buruzkoa bata, eta *eDTB*, euskal doktorego tesien bilduma bestea, Eusko Ikaskuntzak eta kanpoko lagunek sortutako eduki zientifiko-kulturalak zabaltzeko eta, orokorrean, euskal kulturari buruzko baliabideak gizarteratzeko.



16. irudia

HEDATUZ Euskal zientzia eta kulturaren liburutegi digitala. (<http://hedatuZ.euskomedia.org/>);
eDTB Euskal doktorego tesien bilduma. (<http://edtb.euskomedia.org/>)

Sancho el Sabio Fundazioak *Euskal Memoria Digitala* garatu du. Biltegan, Euskal Herriari buruz erakundean bertan ekoizten diren materialak daude, eta baita eskuratzentzera gordetzen dituenak ere.

Asmo desberdinarekin sortu zuen EHUn bere *OCW-a*, hezkuntzarako biltegia. Bertan, arlo anitzeko klaseten erabiltzen diren materialak eta ikasgaiak prestatzeko erabil daitezkeen baliabide akademikoak zabaltzen dira.

Estatuan, *biltegi irekiaren biltzaile* handiak ere sortu dira, Estatu osoko biltegien datuekin. Informazio irekia lortzeko biltaile moduan erabil daitezke eta Espainiako ekoizpen zientifiko hedatzeko plataforma handienak dira. Horien artean, *Recolecta* «zientzia irekiaren biltzailea» dago, Espainiako zientzia eta teknologia arloetan dokumentuak eskuratzeko sarbide puntuak, biblioteka unibertsitarioen sareak, REBIUN, eta Espainiako Zientzia eta Teknologia Fundazioak, FECYT-k garatutako ekimena.

Bestetik, *Hispana* biltzailea dago. Bilatzailea Kultura Ministerioak sortu du, helburu orokorrarekin, eta, gaur egun baliabide gehien eskaintzen duen plataforma da. Espainiako biltegiak biltegia dela esan dezakegu, eta direktorio moduan ere funtzionatzen du, Estatuko artxibo, liburutegi eta museoen objektu digital irekiak bilduz, gehi unibertsitateko biltegiak eta komunitate autonomikoen biblioteka digital gehienak.



17. irudia

Euskal Memoria Digitala (<http://www.memoriadigitalvasca.es/>)

18. irudia

UPV/EHUko OCW-a (<http://ocw.ehu.es/>)

19. irudia

RECOLECTA (<http://www.recolecta.net/buscador/>);
Hispana (<http://roai.mcu.es/es/inicio/inicio.cmd>)

5. SARBIDE IREKIKO INFORMAZIOA ETA EGILE-ESKUBIDEEN KUDEAKETA

Biltegiak baliabideez elikatzeko eta biltegiak hedatzeko eta jendartean zabaltzeko, egilearen baimena lortzea da lehenengo pausua, dokumentu guztieta rako egile-eskubideak errespetatuz. Baina, egileak bere eskubide guziak edo eskubideen zati bat utzi, eman edo konpartitu baditu, arazoak sor daitezke, eta titular berri guziekin (normalean, argitaletxeekin edo banatzaileekin) kudeatu behar dira baimenak.

Egile-eskubideak kontzeptuaren barruan, bi eskubide mota daude: eskubide *moralak*, betirakoak eta transferitu ezinak —egileasunaren eskubidea bezala— eta *ekonomikoak*, transferitu daitezkeenak eta mugatuak (ustiapen eskubideak, konpentsazio eskubideak...).

Edozein lan argitaratzean, eskubide ekonomikoak utzi, konpartitu edo eman daitezke, osoz edo zatiz. Eskubide ohikoak dira erreproduitzeko, banatzeko, komunikatzeko eta obra aldatzeko eskubideak. Publikazioaren eredu tradizionalan, argitaletxe eta banatzaile handiek eskubide ekonomikoak kontrolatzen dituzte, *copyright* ereduari jarraituz. Ustiapan eskubideak izendatzeko erabiltzen den formula bat da, esplotazio eskubideen titularra zein den adierazteko, hau da, nork izaten dituen «*eskubide guziak erreserbatuta*». Kontzeptu horrek informazioarako sarbide murriztua zekarren eta baliabideak lortzeko koste ekonomiko handia.

Eredu tradizionalak oztopoak jartzen zituen, informazio eskuragarria, doako eta berrerabilgarria bultzatzeko, batez ere eskubide ekonomikoak kudeatzerakoan. Argitalpen eredu alternatiboak beharrezkoak ziren, lanak argitaratzean egileei askatasun handia emateko eta erakundeei bilketa lana errazteko. Horregatik, *Copyleft* mugimendu alternatiboa sortu zen, gaur egun *Copyright* eredu tradizionalaren parekoa.



20. irudia

Copyright eta Copyleft sistemak

Alternatiba horren bidez, egileak berak eskubide guztien kudeaketa erabakitzent du, lizentzia desberdinaren bidez: zer eskubide mantendu, zer eskubide «es-kaini» jendeari edo zer aukera ematen ditu bere obra erabiltzeko. Hala, informazioaren erabilera librea bultatzen da: informazioaren elkar-trukatzea, obra eratorriak sortzea, aldaketak baimentzea, erabilera komertziala onartzea... Dena dago egileen eskuetan.

Mugimenduan, lizentzia zehatzak sortu dira, babesten den obraren arabera: softwarean *GPL* (*General Public Licence*), *Coloriuris* lizentziak edukien sortzaileei eskainita (musikalak, ikus-entzunezkoak, fotografikoak, literarioak), *Aire incondicional* eta *Arte libre* lizentziak... eta, orokorrean, sortze lanentzako gehien erabiltzen direnak *Creative Commons* lizentzia malguen sistema.

CC lizentzia guztia lau ideiatan oinarritzen dira: egiletasunaren onesprena; erabilera komertzialik ez izatea; eratorririk ez sortzea; berdin konpartitzea. Guztien artean, egiletasunaren onesprena da oinarrizko ideia eta egileak erabakiko du zein gehiago aukeratu lizentzia egokiena lortzeko.

Lizentzia berri hauek harrera zabala izan dute Spainian; horregatik, dokumentu irekiak sortzea gero eta normalagoa da egile eta erakundeen artean. CC monitorearen datuak erakusten dutenez, Spainia bigarren estatua da lizentziaren erabilera bolumen aldetik eta zazpigarrena ekoizten diren dokumentuen askatasunaren aldetik. Gainera, Estatuan gehien erabiltzen den lizentzia «onesprena» da, askatasun gehien ematen duena⁵.

⁵ Munduan CC lizentziak indarrean dauden 52 herriekin komparatuz gero: 9.220.224 dokumentu CC lizentziekin eta 3.6 askatasun tasa. Iturria: CC monitor (data: 2010-05-22).



Aitortu (Attribution): Edukien iturriak aipatzera derrigortzen du.



Ez Komertziala (Non Commercial): Edukiekin irabazi ekonomikorik ez lortzea derrigortzen du.



Lan Eratorrik Gabe (No Derivative Works edo No Derivs): Edukiak elkarbanatzen uzten ditu baina inongo aldaketarik egin gabe.



Partekatu Berdin (Share Alike): Edukien jatorrizko lizentzia berdinarekin erabiltzea derrigortzen du.

21. irudia

CC lizentziak garatzeko ideia nagusiak

Biltegietan bibliotekak ekoizpen akademikoa biltzen duenean, egile-eskubideen titularrak unibertsitatekoak badira, normalean *Creative Commons* lizentziak proposatzen zaizkie, adostutako lizentzia zehatz bat, dokumentuaren araberakoa izaten dena, edo egileek aukera dezaketenena. Eskubideak argitaletxe edo banatzai-leei transferituta badaude, dokumentu bakoitzaren eskubideak argitaletxearen araberak kudeatu behar dira. Gaur egun, hainbat plataforma daude argitaletxeen politikak ezagutzeko, *Sherpa/Romeo* nazioarteko bata eta *Dulcinea* estatuko bestea.



DULCINEA

22. irudia


Sherpa/Romeo eta Dulcinea

Romeok argitalpen seriatuen eta gainbegiratutako aldizkarien informazioa eskaintzen du, dokumentuak lortzeko, kontsultatzeko eta berrerabiltseko baldintzak zeintzuk diren jakin ahal izateko. Editoreak kolore desberdinez sailkatuta agertzen dira, dokumentuen artxiboa eta komunikazioa onartzen dutenak eta onartzen ez dutenak:

berdea: preprint eta post-printak artxibatzeko baimena	urdina: baimena postprintak artxibatzeko, ez pre-printak	horia: baimena preprintak artxibatzeko, ez postprintak	zuria: ez du artxiborik baimentzen
---	---	--	--

6. SARBIDE IREKIA SUSTATZEKO POLITIKAK

Nazioarte mailan, sarbide irekiaren mugimendua sustatzeko politika ofizialak garatu dira azken urteetan, batez ere derrigorrezko mandatuak eta gomendioak, baina, dudarik gabe, bien artean derrigorrezko mandatuek izan dute arrakasta handiena. Munduko mandatuen grafikoaren arabera, mandatuen kopurua asko hazi da 2009. urtetik aurrera, erakundeetakoak bereziki. Gainera, indarrean dauden politiken artean gehienak erakundeen mandatuak dira, hau da emaitza akademikoak era-kundearen biltegian batzeko mandatuak (117), eta horien ostean tesiak gordetzeko agintearak (75)⁶.



23. irudia

Munduko agintearak. Iturria: ROARMAP, Registry of Open Access Repository Material Archiving Policies (<http://roarmap.eprints.org/>)

Europa mailan, Europako Batzordeak 2007. urtean aurrerapausua eman zuen, erakunde publikoentzako argitalpenen bilketa biltegietan sustatzeko gomendioa zabalduz, eta pausu horren atzean, Batzordeak berak eta beste erakunde batzuek Europaren sarbide irekiari buruzko hainbat mandatu eman zituzten.



24. irudia

Melibea (<http://www.accesoabierto.net/politicas/>)

⁶ Iturria: Registry of Open Access Repository Material Archiving Policies, ROARMAP (<http://roarmap.eprints.org/>).

Espanian ere mugimendua sustatzeko mandatuak indarrean jarri dira, baina oraindik oso gutxi dira. Gehienak biltegiekin zerikusia duten mandatuak izaten dituzte eta beste batzuk aldizkari irekiekin. *Melibea* direktorioa da tresnarik onena, gaur egungo egoera eta politikak ezagutzeko, estatuko derrigorrezko mandatuak eta gomendioak bertan azaltzen direlako.

Espanian, 208 erakundeetatik 8 erakundek bakarrik derrigorrezko mandatuak sustatzen dute sarbide irekia. 8etatik 6 unibertsitateak dira eta beste 2ak ekoizpen zientifikoak finantzatzen duten erakundeak.



25. irudia

Espaniako mandatuak. Iturria: ROARMAP, Registry of Open Access Repository Material Archiving Policies (<http://roarmap.eprints.org/>)

Unibertsitateen artean hiruk sarbide irekiko politika bikoitzak sortu dituzte, eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan, Unibertsitate Obertan eta Madrilgo Politeknikoan bai biltegietan artxibatzeko bai aldizkari irekietan argitaratzeko mandatuak daude. Besteek, hau da, Madrilgo Rey Juan Carlos, Carlos III eta Salamanako Unibertsitateak biltegiekin lotutako mandatuak baino ez dituzte⁷.

Ikerketak finantzatzen dituzten erakundeen artean, Madrilgo Autonomia Erkidegoa eta Asturiasko Printzerria derrigorrezko mandatuak ematen dituzten baka-rak dira, biak 2009. urtean. Bi autonomia erkidego horietan, diru publikoarekin

⁷ Melibea eskaintzen dituen datuen arabera (<http://www.accesoabierto.net/politicas/>) (kontsulta: 2011-03-28).

sortu diren ikerketen emaitzak biltegi instituzionaletan artxibatzera behartzen dituzte.

Pausurik handiena Espainiako *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza lege berria* izan daiteke. Kongresuan onartu den legearen proiektua zientziarako sarbide irekiari buruzko atal zehatzak zituen, 36 eta 45. artikuluetan⁸. Hauek izango dira politika nagusiak, legea indarrean sartzen den bitartean aldaketa sakonak egiten ez baitutuzte betiere:

- Zientzia eta Teknologia sistemaren mandatuek biltegi propioen nahiz konpartituen garapena bultzatuko dute, haien langileen argitalpenetarako sarbide irekia emateko.
- Estatuko aurrekontu orokorrekin finantzatuta dauden ikerketaren emaitzek bertsio digitala izan behar dute, jendartean zabaltzeko.
- Bertsio elektronikoa sarbide irekiko biltegietan hedatuko da, bai biltegi tematikoetan, bai biltegi instituzionaletan. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak biltegietarako sarbide zentralizatua ahalbidetuko du, eta baita estatuko nahiz nazioarteko antzoko beste ekimenekiko konexioa ere.

Politika ofizialez gain, sarbide irekia sustatzeko beste ekimen interesgarri batzuk ere burutu dira eta horietako batzuk aipatzea merezi du. *Open Access Week* plataforma, mundu mailan sarbide irekiari buruz prestatzen diren ekimen eta gerakari guztiak ezagutzeko, eta urtero egiten den *Open Access* astea ekitaldia hedatzeko tokia⁹. Sarbide irekiari buruzko on line foro handien artean *American Society Open Access Forum* dugu¹⁰, mugimendua dena ezagutzeko eta eztabaidatzeko: biltegiei buruz, aipamenen inpaktuaz, egile-eskubideez, aldeko politikez eta ekinenez.

7. ONDORIO BATZUK ETA HAUSNARKETA

Open Access mugimendua, munduko hainbat tokitako komunitate zientifikoeitan sortua, globalizatu egin da eta, azken urteetan, agintari desberdinien implikazioa irabazi du, liburuzain eta informazio-munduko profesionalen parte hartzea lortu du batez ere, eta, pixkanaka, mundu akademiko eta zientifikoaren onarpena ere bai.

Sarbide irekia argitalpenerako aukera alternatibo bat bihurtu da, eta nazioarteko komunitate zientifikoaren ikerketen emaitzak hedatzeko bide baliagarria da gaur egun. Zalantzarik gabe, abantaila handiak eskaintzen ditu ikasleentzat, irakasleentzat, ikerlarentzat eta, oro har, gizarte osoarentzat.

⁸ Zientzia eta Berrikuntzaren Ministerioak, lege berriaren proiektua (http://www.micinn.es/stfls/MICINN/Ministerio/FICHEROS/Proyecto_de_Ley_de_la_Ciencia%20_la_Tecnologia_y_la_Innovacion.pdf).

⁹ Open Access Week (<http://www.openaccessweek.org/>).

¹⁰ Forum honetan parte hartzeko eta artxiboak eskuratzeko helbide elektronikoa (<http://amsi-forum.amsi.org/archives/American-Scientist-Open-Access-Forum.html>).

- *Libreagoa* da: eredu tradizionalean argitaletxeek duten monopolioaren aurrean, ikerlarien emaitzak hedatzeko askatasuna eskaintzen du.
- *Zabalagoa* da: mundu osoko informazioa lortzeko aukera osoa ematen du, batez ere bereganatzeko zailak diren dokumentu akademiko desberdinak hedatzen dituelako (kongresuen materialak, hitzaldien laburpenak, ikastaroen oharrak...) eta ikerketak egiteko erabiltzen diren datuetarako sarbidea eskaintzen duelako.
- *Borobilagoa* da: edukiak erabiltzeko, moldatzeko eta berrerabiltzeko ideiak nagusi dira mugimenduan.
- *Azkarragoa* da: argitalpenei bat-bateko ikuspena ematen die nazioarte mailan.
- *Impaktu gogorragoa* du: ikerketen ikuspena handiagoa denez, irakurriak izateko eta beste ikerlarien lanetan eragina izateko aukerak bikoitzu egiten dira.
- *Gardenagoa* da: ikerketaren emaitzak hobeto kontrolatzen dira, bai erakundeen aldetik, bai komunitate akademikoaren aldetik. Bestalde, ikertzaileek ziurtatua dute beren eskubideak aukeratzeko eta mantentzeko modua.
- *Luzerakoa* da: Lan akademikoak biltzen dira hedatzeko asmoz, baina haien kontserbazioa ere bermatzen da.
- *Parte-hartzea aktiboagoa* da: Ikertzaileek argitalpenean hartzen dute parte, baina publikoak ere zeresan handia izan dezake (edukiak erabiltzerakoan eta egokitzerakoan). Biblioteka guztiak, kudeatzaileak bezala, betebehar aktiboagoa lortzen dute ikerkuntza prozesuan.

Estatua ez dago mugimendu honetatik kanpo. Gaur egun, hainbat erakundek sarbide irekiaren ekimenarekin bat egin dute eta politika aktiboak garatzen ari dira artxibo irekiak sortzeko, kudeatzeko eta garatzeko. Gobernuaren eta administracioen inplikazioa ere pixkanaka lortuko du mugimendua.

Biblioteka unibertsitarioak oso inplikatuta daude sarbide irekiaren alternatibetan, batez ere biltegiak bultzatzen eta biltegiak egiteko software-tresnak garatzen. Bestalde, unibertsitateko ikertzaile eta irakasle taldeak animatzen dituzte argitalpen irekietan parte hartzen eta lizentzia libreak erabiltzera, hain lanak zabaltzeko.

Dena den, oraindik sarbide irekiaren mugimendua komunitate zientifiko eta akademiko guztietan ez da erabat ezaguna, eta are gutxiago gizartean. Bibliotekak eta informazio profesional guztiok badugu lan handia mugimendua azaltzeko eta mugimenduari buruz sortzen diren zalantza guztiak bideratzeko.

Ikertzaile eta talde akademiko guztientzat mugimendua ez da oso fidagarria oraindik. Mesfidantza hori hainbat arrazoirengatik izan daiteke: mugimendua benetan zer den eta zertarako balio duen ez jakitea, sarbide irekiko materialak nola publikatzen diren edo egile eskubideak nola bermatzen diren ez ezagutzea, plagioari beldurra...

Gure eskuetan dago mesfidantza hori ezabatzea eta, horretarako, hau azpimarratu behar dugu:

- Publikazio eredu tradizionala eta alternatiboa batera bizi daitezke.

- Lizentzia irekiak ikerketaren ebaluazioan ez dira interferentzia bezala hartu behar.
- Biltgien eredu osagarria da, ez dago aldizkari eta argitalpen tradizionalak ordezkatzen.
- Plagioa sufritzeko arriskua txikiagoa da (material ezagunagoekin kopiatzeko tentazioak murritzten dira).

Oraingoa ikusiz eta analizatuz, zer egin bibliotekatik sarbide irekiarekiko konpromisoa sustatzeko? Hona hemen, bukatzeko, hausnarketa batzuk:

- *Biltegi irekien sorkuntza, kudeaketa eta hedakuntzarekin jarraitzea.* Biltegiak elkarrekin lan egiteko prestatuak egon behar dute (protokolo berbera erabiliz, *OAI* protokoloa). Horrela, erakunde guztien eta bakoitzaren biltegiak sarean biltegi bakarra bezala berreskuratzea ziurtatuko dugu.
- *Politika zehatzak proposatzea, biltegiak kudeatzeko.* Argi izan behar da zer motatako dokumentuak bildu: zer lizentzia CC erabiliko diren eta zein izango diren gomendagarrienak; zer-nolako sarbidea eskainiko den, sarbide irekia dokumentu guztiarako edo sarbide murritzua batzuetarako izango den... Azken baten, helburua da saiatzea sarbide irekia ahalik eta informazio gehienerako izatea.
- Biltegiaren *edukiei ikuspen handia ematea*, nazioarteko eta estatuko direktorioetan erregistratuz eta sarbide irekiak dituzten beste erakundeekin lan eginez.
- *Irakasleak eta ikertzaileak ondo ezagutzea, lagunza emateko.* Aurrena, sarbide irekiari buruzko zalantzak argitu eta, gero, haien lan guztiak biltzen eta gordailuan jasotzen laguntzea, gure biltegi instituzionala egiteko.
- Komunitate akademikoari eskaintzen zaizkion *zerbitzuei balio erantsiak* ematea, haien lana eta konpromisoa errazteko; adibidez, egile-eskubide eta jabetza intelektualari buruzko aholku-zerbitzuak.
- Unibertsitatean bertan aurkezpenak eta mugimendua hedatzeko *ekintza aktiboak egitea*. Hezkuntza-komunitate osoarekin, irakasleekin nahiz ikasleekin *prestakuntza programak garatzea*, saio bereziak antolatuz eta informazio iturri irekiak ezagutzeko baliabide tekniko eta metodologikoak emanet.
- *Unibertsitako agintariak* sarbide irekiaren onuraz *konbentzitzen saiatzea*. Erakunde barruan zuzendaritzarekin, departamentuekin eta kontseiluekin bilera informatiboak egitea, nazioarte eta estatu mailan garatu diren ekimen zehatzak ezagutarazteko.
- Unibertsitatean sarbide irekiaz *politika zehatzak* lortzen saiatzea, gomedioen bidez edo derrigorrezko mandatuen bidez.

8. GEHIAGO JAKITEKO

ABADAL, Ernest *et al.*: «Open acces in Spain». In *Open Access in Southern European countries*. Anglada, Lluís; Abadal, Ernest (ed.). Madril: FECYT, 2010.

- AGUASCA, Monserrat; CASALS, Judit; LABASTIDA, Ignasi: «Gestión de derechos de propiedad intelectual en el repositorio institucional y en las colecciones digitales de la Universitat de Barcelona» [linean]. In *IX Workshop Rebiun, Proyectos digitales. Salamanca, 2009ko urriak 1-2.* [Kontsulta: 09/03/2011] <http://sabus.usal.es/workshop/pdfs/3/derechos_autor.pdf>
- BAILEY, Charles W.: *Transforming Scholarly Publishing through Open Access: A Bibliography*. Houston: Digital Scholarship, 2010.
- BARRUECO CRUZ, José Manuel (coord.): *Guía para la evaluación de repositorios institucionales de investigación* [linean]. V. 1.0. Abendua, 2010. [Kontsulta: 09/03/2011] <<http://www.recolecta.net/buscadador/documentos/GuiaEvaluacionRecolectav1.0-1.pdf>>
- BJÖRK, B.-C; WELLING, P.; LAAKSO, M.; MAJLENDER, P.; HEDLUND T. et al.: «Open Access to the Scientific Journal Literature: Situation 2009» [linean]. *PLoS ONE*. 2010. 5(6). [Kontsulta: 09/03/2011] <<http://www.ncbi.nlm.nih.gov/pmc/articles/PMC2890572/>>
- BuscaRepositorios. Directorio de repositorios institucionales españoles de acceso abierto* [linean]. [Kontsulta: 09/03/2011]. <<http://www.accesoabierto.net/repositorios>>
- CC monitor [linean]. [Kontsulta: 12/03/2011]. <<http://monitor.creativecommons.org/Spain>>
- CORDÓN GARCÍA, José Antonio et al.: *Las nuevas fuentes de información: información y búsqueda documental en el contexto de la web 2.0*. Madril: Pirámide, 2010.
- DOAJ. [linean]. [Kontsulta: 28/03/2011]. <<http://www.doaj.org>>
- De las bibliotecas universitarias a los centros de recursos para el aprendizaje y la investigación:* Manuel Area-ren zuzendaritzapean eginko txostenaren laburpena. Madril: CRUE, 2005.
- FERNÁNDEZ MORALES, Isabel: *El impacto de los archivos de eprints en la comunicación científica entre los investigadores españoles: aceptación y uso* [linean]. Madril: CINDOC-CSIC, 2003. [Kontsulta: 08/03/2011]. <http://www.fesabid.org/.../comunicaciones/fdez_morales_isabel.pps>
- FERNÁNDEZ QUIJADA, David: «Revistas científicas e índices de impacto. A propósito de “Hacer saber”». In *Área Abierta*, 2008, zk. 20.
- FERRERAS FERNÁNDEZ, Tránsito: «Las bibliotecas universitarias y el acceso abierto a la ciencia» [linean]. In *IV Jornadas BUCLE sobre bibliotecas universitarias. Bibliotecas universitarias: evolución e innovación. Ávila, 17 de septiembre de 2010.* [Kontsulta: 2011/03/03]. <http://gredos.usal.es/jspui/bitstream/10366/76793/1/BUCLE_Ferreras_Fernandez_T_Lasbibliotecasuniversitariasyelaccesoabierto.pdf>
- HERNÁNDEZ, Tony; RODRÍGUEZ, David; BUENO, Gema: «El papel de las bibliotecas en los repositorios institucionales de acceso abierto». In *Anales de documentación*. 2007, zk. 10, orr. 185-204.
- LABASTIDA, Juan Ignacio; IGLESIAS REBOLLO, César: *Guía sobre gestión de derechos de autor y acceso abierto en bibliotecas y archivos* [linean]. Madril: SEDIC, 2006. [Kontsulta: 08/03/2011] <http://www.sedic.es/dchos_autor_normaweb.01.07.pdf>
- MELERO, Remedios: *Open Access y repositorios institucionales* [linean]. Madril: CSIC, 2006. [Kontsulta: 2011/03/03] <http://www.iata.csic.es/~birem/OPEN_ACCESS/repositorios-articulo-melero.pdf>
- Melibea* [linean]. [Kontsulta: 2011/28/03]<<http://www.accesoabierto.net/politicas/>>
- OpenDOAR. Directory of Open Access Repositories* [linean]. [Kontsulta: 2011/12/03] <<http://www.opendoar.org>>
- Proyecto de Ley de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación* [linean]. Madril: Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, 2010. [Kontsulta: 2011/09/03]. <<http://www.micinn.es/stfls/>>

MICINN/Ministerio/FICHEROS/Proyecto_de_Ley_de_la_Ciencia%20_la_Tecnologia_y_la_Innovacion.pdf>

Recolecta: recolector de ciencia abierta [linean]. [Kontsulta: 2011/09/03] <<http://www.recolecta.net/buscador/index.jsp>>

ROARMAP, Registry of Open Access Repository Material Archiving Policies [linean]. [Kontsulta: 2011/12/03] <<http://roarmap.eprints.org/>>

ROAR [linean]. [Kontsulta: 2011/28/03] <<http://www.opendoar.org>>

V

Teknologiaren eragina erabiltzaile, profesional eta liburutegi-estrukturetan. Nora doaz gure betiko liburutegiak? Hausnarketa irreflexibo bat

Fernando Juárez Urquijo

Muskizko Udal Liburutegiko liburuzaina. Biblioblog 3. edizioko egilekidea
Bibliotecario de la Biblioteca Municipal de Muskiz. Coautor del blog Biblioblog 3^a edición

Laburpena: Betiko liburutegiaren eta gaur egun informazioa bilatzeko ditugun tresnen artean haustura bat dagoela ematen du, papera eta pantailaren artean ematen dena. Egoera berriak hausnarketa eskatzen du liburuzainongan, eta informazio eta komunikazio teknologik garatu ahala, gure zerbitzuak egokitzen saiatu gara. Hori da, hain zuzen, txosten honen helburua: azaltzea zertan ari garen liburutegietan gaur egungo informazioaren eta erabiltzaileen artean zubi-lana egiteko.

Resumen: Influencia de la tecnología en los usuarios, los profesionales y en las estructuras de las bibliotecas. ¿Hacia dónde se dirigen nuestras bibliotecas tradicionales? Una reflexión irreflexiva. Parece que hay una fractura entre la biblioteca de siempre y las herramientas que tenemos hoy en día para buscar información. La nueva situación requiere una reflexión entre los bibliotecarios, y, a medida que han ido desarrollándose las tecnologías de la información y la comunicación, hemos intentado adaptar nuestros servicios. Ese es, precisamente, el objetivo de esta ponencia: dar a conocer cómo trabajamos en las bibliotecas para ser el puente entre la información y los usuarios de hoy en día.

1. SARRERA

Egun galdeztzen badigute zer den liburutegi bat, pentsatu gabe, honako irudi hau datorkigu burura gehienoi: liburuz jositako apalategiak, mahaiaik, aulkiaik eta



isiltasuna. Liburuez galdetuta seguru asko papera litzateke lehenengo irudia. Baliteke gehienok liburutegia eta jakintza binomioa buruan edukitzea.

Baina galdera behar dugun informazioa non topatzen dugun bada, berehala agertzen dira pantailak. Eta hausnarketa sakonduz gero, konturatuko gara behar duguna berreskuratzeko ez dugula ordutegi jakin batean eraikuntza konkretu batera jo behar; eta lehen eskuliburu potoloetan bilatzen genuena orain klik bat haratago aurkitzen dela. Liburutegira joan eta liburuzainari galdetu beharrean lagunari itaunduko diogu non eta nola aurkitu eduki interesgarri hori.

Informazioa eskuratzeko liburutegira jo behar ez badugu, daukagun jakingura ohiko apalategietan asetzan ez bada: zer egiten dugu orain hain beharrezkoak ez diren apalategiekin, zer egingo dugu behar ez dugun paperetan metatutako informazio horrekin? eta, haratago joanda, zertarako nahi ditugu liburutegiak eta liburuzainak?

Hausnarketa eta galdera hori liburuzainok ere egin dugu eta informazio- eta komunikazio-teknologiak garatu ahala gure zerbitzuak egokitzen saiatu gara. Hauxe da, hain zuen, txosten honen helburua: azaltzea zertan ari garen liburutegietan, gaur egungo informazioa eta erabiltzaileen artean zubi-lana egiteko.

Gizarte-sareen aroan gaude; dena da elkarritzeta eta liburutegiek ere elkarritzeta bultzatu behar dituzte erabiltzaileekin; beraz, lagun bat liburutegian sartzen denetik jakinarazi behar diogu hitz egin nahi dugula. Eta komunikazio berrietara egokitu beharrean gaude.

Gure porlanezko hormetatik komunikazioa bideratzea zaila da, ordea. Muskizko liburutegia zabaldu zenean, 1988an, atea opakuak ziren, kanpotik hurbilten zen edonorentzat mezua argi zegoen: «toki honetan ezagutza batu da gure eskura jartzeko, baina isiltasuna behar da ikasteko, irakurtzeko». Hogei urte ge-roago, antzinako liburutegia birmoldatzean egurrezko atea kendu eta kristalezkoak jarri ditugu; lehen egiten genuen moduan, orain ere informazioa bilatzen, biltzen, deskribatzen eta eskaintzen dugu, baina orain liburutegiaren esparrua ikusgai dago une oro, egiten ari garena erakutsi egiten dugu, gure zerbitzua ezagutzeko eta erabiltzeko gonbidapena lehen baino argiago zabaldu nahi dugulako.

Informazio gizartean ere, paperak informazioa eta irakurketa suspertzeko oinarritzko euskarria izaten jarraitzen du eta «elkarritzeta» hasteko aitzakia ona da; baina, bildu eta eskaintzen ditugun paper horiek kristalezko ate bihurtu beharko ditugu, prestatzen ditugun irakurketa-gidak gaur egungo informazio-transmisioko errealitatara egokitzen baldin baditugu adibidez. Paperak liburu konkretu bat liburutegian daukagula esaten digu (demagun Atxagaren obrak) eta obra horiek zeintzuk diren jakiteko katalogora jo behar izaten dugu; paperezko gida horrek informazio bera eman lezake behar dugun bibliografia bilaketa eginez, irudi berezi bat gehituz edota mugikorren *QR* teknologia baliatuz. Horrela, paperak euskarria gainditzen du eta erabiltzaileekin komunikazioa errazten du; garrantzia mezuan jartzen dugu (ez euskarrian) eta liburutegiak bere zerbitzua betetzen jarraitzen du, inoiz egin ez duen moduan.

2. ALDAKETAREN ESTRATEGIA LIBURUTEGIAN: ZER DA «2.0»? OSO BERRIA DEN ERREALITATEA: ZERGATIK-GALDERATIK NOLA-GALDERARA

Bost urte besterik ez da behar izan 2.0 kontzeptua liburutegietan garatzeko; oso epe laburra, egia esan, «liburutegia 2.0» moda igarokorra izatetik beharra iza-tera pasatzeko (gizartea Interneten buru-belarri egoteko). Horrela «zergatik» gal-detzetik «nola» galdetzera pasatu gara azkar baten. 2006an ez bezala (urte hartan hasi zen kontzeptua erabiltzen gure artean), orain, sarea beharrezko jotzen dugu eta guztiok goraiapten dugu web sozialaren balioa.

«Liburutegia 2.0» ezarpenak kultura eta ohitura oztopoak gainditu behar izan bazituen (teknologia berrien balioa egiazatzeko beharra zegoen, bai gizartean, bai profesionalen artean), orain zerbitzu berriak eskatzen dituzten gizartearen premiei aurre egin behar die ahalik eta lasterren. Profesionalak jadanik ez gara aitzindariak bide berriak jorratzen, komunikazio-teknologia baliatuz etorkizunik ez duen libu-rutegi-zerbitzu zaharkitua berritzeako erronka duten erabiltzaileak baino ez gara.

Aurrera egin baino lehen, teknologia eta tresnen gainetik pertsonak gaudela ar-gitu behar dut. «2.0» kontzeptua ondo ulertzeko jakin behar dugu ez garela tekno-logiaz bakarrik ari, baizik eta teknologia eta jarreraren arteko sinbiosiaz ere bai.

3. GIZARTEA ETA LIBURUTEGIA: «INFORMAZIOA ETA LIBURUTEGIA» ETA «IRAKURKETA ETA PAPERIA» SINONIMOAK ZIRENEAN

Liburutegiak gizartearen isla dira eta ezinbestekoa da gizarteak sortu dituen beharrak ulertzea liburutegien esparruez, funtsaz, zerbitzuez, erabiltzaileen nahiaz eta profesionalen betebeharren garapenaz jabetzeko. Gure liburutegiak industria gizarteak irakurtzeko eta idazteko gai ziren pertsonak izateko zeukan premia ase-tzuko sortu ziren. Liburuaren ezaugarriak (Gutenberg-en garaikitik) ezagutzaren erosketa, bilketa eta kudeaketa baldintzatzen ditu; dokumentu-funtsak izan dira profesionalen eginkizunen arrazoia eta zerbitzuen nondik norakoak markatu/info-satu dituztenak; dokumentuak babesten zituen eraikina gune neuralgikoa izan da; erabiltzailea, berriz, dokumentuak erabiltzeko gune horietara joan behar zuena: In-formazioa eta liburutegia sinonimoak izan dira eta liburia izan da euskarria. Industria gizartearen liburutegietan euskarri horien kudeaketa izan da garrantzizkoena, pertsonen gainetik.

4. GURE GIZARTEA ETA BERE BEHARRAK

XX. mendearen amaieran begi-bistakoa da teknologiak gizarte berri bat molda-tzen ari direla; gizarte berri horretan sarearen ezaugarriak (globala, mugikorra, sin-plea, bat-batekoa, nonahikoa), bizimoduak eta jokabideak baldintzatzen ditu (eros-ketak, administrazioa, osasuna, giza harremanak...).

Sortzen ari den gizarte berri horretan herritarrak informazio eta komunikazio teknologiekin harreman estua eduki eta erraztasunez erabili beharko ditu, eskubide osoko kide izateko. Aldaketa gure ekintza guztietan sumatzen da eta orain arte oinarritzkoak izan diren kontzeptuak (espazioa, denbora), hala nola giza harremanak, birpentsatu egin behar ditugu. Egoera berri honetara moldatzan ez diren pertsonak eta erakundeak baztertuak izateko arriskuan daude.

Liburutegietan eta bertako profesionalen artean ere aldaketak igartzen dira. Gaur egun non dauden informazioa eta jakintza galdetuko bagenu, inork gutxik erantzongo luke liburu eta liburutegietan. Liburutegiak jadanik ez dira informazio bilaketaren erreferentea. Informazioa sarean dago eta multimedia da. Liburutegiek informazioaren monopolioa galdu egin dute eta nora ezean daude; batzuen ustez instituzio zaharkitu eta, agian, baztergarriak, edo gutxienez, ez ezinbestekoak dira.

Bai, ukaezina da jadanik ez goazela liburutegietara informazio bila (Google ahalguztiduna ere bere arazoak izaten ari da bere nagusitasuna mantentzeko sare sozialen aurrean) eta agian desfasaturik geratzeko arriskuan daude, baina ez nago batere ados baztergarriak diren kontuarekin, edota ez ezinbestekoak diren kontuarekin; aitzitik, nire ustez inoiz baino beharrezkoagoak dira. Hori bai, historian zehar, momentuzko gizarte aldaketen aurrean egin duten bezalaxe, orain ere gizarte berri honen beharrak aztertu eta horretara egokitzea ezinbestekoa dute.

5. LIBURUTEGIA BERRIRAKURRIZ: BILTEGIRATZETIK SARBIDERA

Hodei-konputazioak, zerbitzu mugikorrak eta gailu berrien erabilera inforazio eta entretenimenduko kontsumo- ohituretan aldaketa eragiten dute; liburutegiak ziurtatzen digun bilttegitatzea baino sareak eskaintzen digun sarbidea nahiago dugu. Ohiko «informazioa-liburutegia» eta «irakurketa-papera» egoeratik «informazioa-sarea» eta irakurketa-pantaila» egoera berrira igarotzeak aspaldi finkatu-tako kontzeptuak birplantateatzeko (espazioa, funtsa, profesionalak, erabiltzaileak, zerbitzua) eta orain arte «zuzena» izan denaren kontrako erabakiak hartzeko tenorean jartzen gaitu. Egoera zalantzagarri bezain positiboa agertzen zaigu.

Berezko funtsen kudeaketan ekonomia eta lan ahaleginak batzen dituen liburutegiaren oinordekoak gara; bildutako informazioa da liburutegiaren ardatz nagusia eta esparrua, baliabideak eta zerbitzuak haren inguruan mugitzen dira. Liburua ongi kudeatuz gero, liburutegiak bere betebeharra asetzan zuela eta hori egiteko esparru fisiko bat behar zela uste genuen eta horrela izan da duela gutxi arte. Dokumentuen bilttegitatzea nagusitu eta erabiltzailea informazioaren, esparru fisikoen eta profesionalen azpian kokatzen duen ereduak (industria-gizartearena, alegia) diru eta giza baliabide urriko instituzioak zigortzen ditu, batez ere, herri eta eskola liburutegiak.

Kalitatezko sarbide jarioak diru eta giza baliabideak baino gehiago, erabaki ausartak hartzeko orduan, malgutasuna behar du. Baldintza horrekin ulertzen da liburutegi 2.0 eredu eskola eta udal liburutegiei esker sortu dela; erakunde hauek orain arte kontra zeukatenak (azpiegitura ahulak) teknologiekiko jarrera proakti-

boa erraztu du eta, horri esker, informazio irisgarrian eta erabiltzaileekiko elkarritzetan oinarritutako zerbitzuak asmatzea ahalbideratu du.

6. «ESPARRUA-FUNTS» BINOMIOTIK «PROFESIONALA-ERABILTZAILE»-RA, GRABITATE-ZENTROA MUGITUZ: PERTSONAK DIRA LIBURUTEGI BERRIAREN ARDATZA

Interneten etengabeko bilakaerak liburutegi egitura berriak moldatuko ditu, zerbitzua zein arkitekturak birplanteatz; diseinu arkitektonikoaren aldetik, informazioa eskuratzeko eredu berrira egokitzen ari da (dokumentuen euskarrien alda-keta, espazioen askapena) eta zerbitzuari dagokionez, profesionalak sarean eten-gabe konektaturik egon behar dira.

Liburutegia prestakuntzaz, informazioaz eta entretenimenduaz erlazionaturiko zerbitzuak eskaintzen dituen sozializazio-lekua izan da eta kontzeptu hori inoiz baino indartsuagoa da. Informazio gizartea liburutegiaren berezko balioak gorai-patzen ditu. Liburutegiak informazioaren monopolioaren galera, bere komunitatearen gizarte-erreferentzia sendoa bihurtuz, konpentsatu ahal izango du. Erabiltaileen desio eta beharretan fokalizatutako gune atsegina eskaini behar ditugu. Testuinguru honetan, nire ustez, liburutegiaren eguneroko aktibitatea «esparrua-funts»-tik «profesionala-erabiltzaile»-ra aldatzean datza liburutegiak duen erronkarik handiena. Eta hori teknologia berrien erabilpena baino haratago dago.

Gailu eta euskarri berriak paperezko liburua ordezkatzen hasi dira, 2.0 tresnak gero eta gehiago erabiltzen dira eta profesionalek erabili ahala teknologia berriko duten jarrera aldatzen ari da, baina kontuan hartu behar dugu teknologia era-biltze hutsak ez dakarrela eragiten dituen aldaketak barneratzea.

Informazioaren ekologia berriak profesional zein erabiltzaileei informazio gaitasun desberdinak eskatzen dizkie. Informazioaren oparotasunak bitartekariak, *curators*, giza iragazkiak behar ditu, hau da, trebetasun teknologikoa eta jarrera proaktiboa duten pertsonak, kalitatezko sarbidea bermatzeko.

Trebetasun teknologikoak eskuratzeara eta etengabeko irakaskuntzak ez dute zerikusirik ez adinarekin, ez eta lan esparruarekin; nire ustez adin-haustura (liburutegietako profesionalen gehiengoa albo batera utziko gintzkeena) eta informazio teknologia berriak erabiltzeko etxeko eta lan esparruen arteko dikotomia baztertu beharko genuke lehenbailehen.

7. LIBURUTEGI EKOSISTEMA

Web sozialak arrakasta izan zuen arte, liburutegiak informazio-irla bakartuak ziren eta bere zerbitzuak erabili ahal izateko erabiltzaileak bertara jo behar izaten zuen. Momentu honetan, informazioa eskuratzeko bide berriak daude eta liburutegiak berak jo beharko du erabiltzaileengana, baztertuk geratuko ez bada, eta haiei, bai liburutegiaren apalategietatik bertatik, eta baita bere webgunetik ere, ka-

litatezko informazioa eskaintzen jarraitzen duela gogoraziko die. Liburuzainok kudeatzen ditugun funtsak gero eta eguneratuago egon daitezen, liburutegien altzariak eroso eta erakargarri eskaintzen eta elkarritzeta, bai presentzialki bai pantailaren bitartez, bermatzen saiatu behar dugu.

Ezin dugu zereginak bakarka egin, liburutegiak bizirik daude, beste liburutegi eta erabiltzaileekin batera sortutako ekosisteman inbriatuak daude eta eginkizuna betetzeko guztiak premia dute. *Liburutegi ekosistemaren* ideia gustatzen zait: partaide guztiok elkarrekin ekin behar diogu erronkari; eta alde batzen ahuleziak ekosistema osoaren ahulezia ekarriko luke. Ekosistema honetan erabiltzailea funtsezkoa da, liburutegiak bizirik irauteko. Eta erabiltzaile hauekin harremana sendotzeko elkarritzeta behar-beharrezko denez beraiekin hitz egiteko bideak sortu, zabaldu eta indartu egin behar ditugu, informazioaren teknologiek eskaintzen dizkiguten aukera guztiez baliatzu.

8. LIBURUTEGIA IZENEKO GIZARTE SAREA

Gure lagunekin harremanetan jartzea ahalbidetzen diguten tresnekin identifikatzen ditugu sare sozialak. Eta sare sozialak lehertu diren garai aldaketa honetan, badirudi tresna hauetan profilik gabeko liburutegiak jokoz kanpo daudela eta beraz, kalitatezko zerbitzua eskaintzerik ez dutela izango. Balizko arrisku hori uxatzeko liburutegiak buru-belerri sartu dira sare sozialen tresnetan, hori balitz bezala informazio-gizarteak sortutako erronkei aurre egiteko bidea.

Baina sare sozialak sare sozialeko web tresnekin identifikatuz gero, agian liburutegiaren berezko esentzia galdu eta berez bagarenaz ahazteko arriskua dago. Denok dakigu zer den Facebook bezalako zerbitzu bat (guitariko asko erabiltzaileak ere izango gara), baina izena ematera edo lagunak garela esatera behartzen ez duen eta guztiontzat irekita dagoen sare sozialaz galdetuko bagenu, inor gutxik jakingo luke zertaz ari garen. Zeren batzuetan ez gara begi aurrean daukaguna ikusteko gai: sare horrek Liburutegia du izena. Liburutegiak pertsonak, elkarritzetako eta batzeko toki bat eskaintzen du, eta guztioi eskura dago.

Dena den, sare sozialen erabilpen egokia liburutegien erakusmahaian «Egun on» eta irribarretxo atsegina eskainiz hasten da, gutxienezko adeitasun barik ez baitago gure zerbitzua hobetuko duen Facebook, Tuenti, Twitter edo horrelako-rrik.

Dídac Margaikek liburutegiek 2.0 ingurunean murgiltzeko orduan hiru ideia ardatz landu behar dituztela dio:

- nahiz eta zaharra izan, dabilena mantendu;
- gure egunerokotasuna hobetzen duena bereganatu (teknologia); eta
- behar dugun laguntza (eta ideiak) beldur barik eskatu.

